

**ZKZ** Garapen tekniko liburua  
Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel  
Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**

## LIBURU TEKNIKOA

### ZKZGARAPENTEKNIKOA

1 Ikerketa esparrua

2 Eraikuntza sistema

3 Egituraren Kalkulua

4 Atonduren deskribapena

5 Gainontzeko araudiak eta aurrekontua

**ANALISIESPARRUA**

**LIBURU ATALAK**

**1\_ZKZIKERKETAESPARRUA**

### GARAPEN TEKNIKORAKO ANALISI ESPARRUA

Proiektuaren tamaina handiaren ondorioz, garatutako eraikinen artean bat aukeratuko da liburu teknikoak burutu ahal izateko. Ondoko erreferentzia planoetan adierazten delarik.

Eraikuntza guztiz berria duen eraikina aukeratu da garapenerako; mediateka, kultur zentroaren bulegoak eta hostel eremua barneratzen dituelarik. Beraz, erabilera nagusia erresidentzial publikoarena izango da, behe solairuan izan ezik.

Instalazioen garapena gauzatu ahal izateko 2 programa informatiko erabili dira nagusiki: Cype (atondura guztien garapena burutu ahal izateko) eta HULC (Lider eta Calener erraminta unifikatua), azkeneko hau efizientzia energetikoaren ziurtagiria lortzeko burutu egin da.



Kultur zentroaren ebaketa orokorra, urdinez garatuko den eraikina adierazten da




Kultur zentroaren oin orokorra, urdinez garatuko den eraikina adierazten da. Plaza nagusitik gertu



### INGURATZAILE TERMIKOAK

Bi ebaketa eta planta eskema hauetan inguratzaile termikoaren kokapena ikusi daiteke, liburu teknikoan honi buruzko informazio gehigarria ezarriko da, fatxada eta barne banaketa guztiak era argian definituz.

Goiko grafikan hostel eremua, tailerra, bulegoak eta mediateka ikusi ahal dira, argi antzeman daiteke tailer gunea inguratzaile termiko honetatik kanpo gelditzen dela (plantan berdina ikusi daiteke). Sotora ere ez da inguratzaile termikoaren barne kontsideratuko.



Kultur zentroaren infografia, Eraikin berriaren zaharraren gaineko gainjarpena ikusi daiteke.

**ZKZ** Zorrotzaurre kultur zentroa

Tutorea: Ruiz Mugica, Carlos Gabriel

Ikaslea: Loza Lazkano, Mario **MAL**

ERAIKUNTZA SISTEMA

## **LIBURU ATALAK**

### **2\_ERAIKUNTZASISTEMA**

- 1 Proiektuaren eraikuntza deskribapena
- 2 Araudiaren justifikazioa HS1/HS5
- 3 Eraikuntza xehetasun planoak

**PROIEKTUAREN ERAIKUNTZAREN DESKRIBAPENA**



## PROIEKTUAREN ERAIKUNTZA DESKRIBAPENA

Atal honetan proiektuaren diseinu deskribapena garatuko da, eraikuntza elementuetan zentratuz. Lehenik proiektuaren deskribapen orokor bat garatuko da eta ondoren eraikuntza elementu nagusiak definituko dira.

### PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Eraikina edo eraikin multzoa (Zorrotzaurre kultur zentroa) Zorrotzaurreko penintsulan kokatzen da, Bilboko iparraldean. Hau garrantzitsua izango da EKT kode teknikoan zein eskakizunak bete behar diren ziurtatzeko. Araudiaren justifikazio atalean definitu den moduan, eremuak hezetasun handia izango du. Beraz horma eta soleraren iragazkortasun maila 5 izango da eta fatxada aldiz 4 (informazio guztia araudi atalean justifikatua).

Proiektua eraikin ezberdinez eta gune publiko egituratzaile batez osatzen da. Auzoan gaur egun dagoen kultur zentroa berreskuratzea da helburu nagusia, Zorrotzaurreko master planaren ostean. Dena den garapen teknikorako eraikin guztietatik bat aukeratu da, guztiz eraikuntza berria dena, hain zuzen. Gainontzeko eraikinak eta proiektuaren arrazoiak proiektuaren liburuan definitzen direlarik.

Aukeratutako eraikina Hostel eremu bat, mediateka eta zentroaren bulegoak osatzen dute. Materialtasunari erreparatuz ezan daiteke izaera industrialeko materialak erabili direla batik batik. Honen arrazoi nagusia proiektuaren itxura arina eta gunearen memoria historikoa errespetatzea da. Zorrotzaurre identitate industrialeko gunea da gaur egun, baina etorkizunean master plan berriarekin izaera hori galdu egingo du, eraikuntza sistemaren bitartez iraganeko identitatea oroitzea bilatzen da. Proiektuan, bere osotasunean, zenbait jatorrizko pabilioi mantentzea proposatzen da eta Hostel eremua hauekin kontaktuan egongo da, espazio egituratzaileak elkar lotzen dituelarik.



### ESPAZIO PUBLIKOAK:

Espazio publikoari dagokionez, proiektua hiru plaza nagusiz osatzen da: Auzoko etxebizitzetatik gertu dagoen plaza, zentroaren plaza nagusia (proiektuaren erdian kokatzen dena, dispositibo egituratzaile bezala) eta elizaren atzeko plaza gunea). Guztietan berdeguneen eta pabimentuaren arteko erlazioa bilatzen da, eremuaren erabileraren arabera horietako bat nagusitzen direlarik.

Liburu teknikoan garatuko den eraikina (hostel eraikina) zentroaren plaza nagusiaren alboan kokatzen da. Plaza honetan hormigoizko baldosa hidraulikoak izango dira nagusi, batik batik eremu diafano eta polibalente batik bilatu nahi delako, baldosa hauen artean zenbait puntutan txorakoak ezarriko dira begetazioa hazi dadin.

### ERAIKINAREN ERAIKUNTZA DESKRIBAPENA ATALKA:

Ondoren proiektuaren eraikuntza elementuak multzoka aztertuko dira, hauek izaeraren arabera klasifikatuz.

#### LURRAREKIN KONTAKTUAK DAUDEN HORMAK ETA ZORUAK:

##### - Sotoko hormak:

Eraikinaren sotoaren perimetroan ezarriko da, bai gela teknikoaren guneetan bai parkin gunean. 30 cm-ko sotoko horma planteatu da eraikinaren egituraren kargak ere jasoko dituen. Honek 5. Mailako iragazkortasuna izan behar duenez, lamina iragazgaitza kanpotik eta dreñaia elementuak ezarri egin dira (dreñaia tutua eta dreñaia geruza). Solera, iragazkortasun maila dela medio, 10 cm enkastratuko da aipatutako horma honetan (informazio hau xehetasunetan dago ikusgai).

##### - Solera:

Sotoko lurrian solera armatu arrunta bat ezartzea planteatu da, kontuan izanda honen iragazkortasun maila 5 izan behar dela HS1 kode teknikoaren arabera. Beraz, lamina iragazgaitza beheko (kanpoko) hertzean planteatu behar izan da. Erabiliko den hormigoia ere ez hidrofiloa izan behar da. Aurreko atalean azaldu den moduan, hau 10 cm enkastratuko da sotoko horman.

#### ITXITURA HORIZONTALAK ETA FORJATUAK:

\*Forjatuak aztertu baino lehen garrantzitsua da aipatzea proiektuaren egitura altzairuzkoa planteatu dela, sistema arinago bat lortzen da modu honetan. Tailerreko gunean beharrezkoa den argia ere izango da aukeraketaren arrazoietako bat (8m). Ahalik eta zutabe kopuru gutxiena lortu nahi da behe solairuan, gune diafanoak lortzeko (iraganeko eraikina erabileraz aldatzeko gaitasuna izatea bilatu nahi da).

##### - Forjatuak:

Forjatuei dagokionez txapa kolaborantedun sistema arina aukeratu da (informazio gehigarria egitura atalean). Hauek zenbait ataletan kalearekin kontaktuan egongo direnez isolatzailea sabai faltsuan edo zoru teknikoan ezartzeko aukera diseinatu da proiektuan, hauen kokapena xehetasunetan dago ikusgai. Txapa kolaborantearen eraikuntza diseinua Incoperfil enpresaren arabera burutu da. Forjatua guztiz 15 cm-ko lodiera izango du (hormigoia eta txapa barne).

### - Itxitura horizontalak:

Bi itxitura horizontal desberdin klasifikatu ahal ditugu eraikinean. Hostel eremua estaltzen duen estalki maldatsua eta hostel eremuko guneko komunitarioan dagoen terrazaren estalki zapalgarri laua. Bi modelook ondoren definituko dira.

- Estalki maldatsua:

Rockwool enpresaren soluzioa aukeratu da estalki mota hau garatzeko. Metalrock estalki arin soluzioa hain zuzen. Txapa kolaborante baten gainean rockwool isolatzailea ezartzen da (arroka artile hidrofugoa) eta gainean junta altxatuazko zink estaldura. Proiektuaren estalkietan arintasuna bilatzen da baita aipatutako izaera industrialaren mantentzea. Urak fatxadetan ezartzen diren erretenetara garraiatuko dira eta zorroten bertikalak fatxadatik eramaten direlarik. (xehetasunetan ikusgai). Estalkia ahal den neurrian garbi gelditzea nahi da, horregatik azkenengo solairuari 5 metroko altuera ezarri zaio. Estalki azpitik aireztapen tutueri guztiak garraiatuko dira galeria komun guneetatik.

Estalkiari gagokionez ere aipatu beharra dago, fatxadetan bezala, isolatzailea kanpoaldetik ezartzea planteatu dela, arroka artile hidrofugoa erabiliko da. Lurrinaren kontrako hezia eta lamina iragazgaitza ere ezartzeko beharra dago Hs1 atalaren arabera.

- Estalki lau zapalgarria:

Terrazetan, forjatu kolaborantearen gainean ezarriko da estalki irauli zapalgarria. Hs1 atalaren arabera lurrinaren kontrako hezia izan beharko du isolatzailearen atal beroan eta lamina iragazgaitza isolatzailearen gainean. Estalki honetan poliestireno extruituta erabiltzea planteatu da isolatzaile hidrofugo moduan. Zolatu flotagarria ezarri da proiektuan, xehetasunetan ikusi ahal den moduan. Baldosen artean ura jasoko da terrazan kokatzen den erretenean jasotzen direlarik. Proiektuan ez da hostel eremu komunitarioaren terraza definitu, hosteleko gelen terraza baizik. Dena den sistema bera erabiltzea planteatu da bi guneetan.

### - Itxitura Bertikalak:

Bi itxitura horizontal nagusi definituko dira proiektuan: Polikarbonato plakaz osatutako aire ganbera aireztatu dun fatxada (termoartzilla orri nagusiduna) eta termo artzilla blokedun orri bakarrekoko fatxada. Bi fatxada mota hauen izateko arrazoia proiektuaren inguratzaileari dagokio. Proiektuan inguratzaile termikoa soilik mediatekan, bulegoetan eta hostel eremuko geletan ezarriko da, eraikineko tailer gunea aldiz, bakarrik barne eta kanpo espazioa banatuko dituen inguratzaile bat izango du: polikarbonatozko kanpo orria. Beraz, fatxada aireztatu arinaren elementuak zenbait puntuta bananduko dira, fatxada orri bakarrekokoan bilakatzen delarik. Trantsizio hau xehetasunetan aztertu daiteke.

1. Orri bakarrekoko fatxada, urarekin kontaktuan:

HS1 kode teknikoko atalaren arabera 4. mailako iragazgaitzasunaren eskakizunak betetzeko ondorengo sistema ezarri da: 28 cm lodierako termoartzilla arindu blokedun orri nagusia isolatzaile termikoa kanpoaldetik ezartzen delarik. Fatxada bistan dagoen guneetan akabera leuna eta hidrofugoa planteatuko da. Fatxadaren barnean zutabe metalikoak ezarriko dira, bermatze puntuak ezartzen direlarik (hau oin xehetasunetan definituko da).

2. Orri bakarrekoko fatxada, urarekin kontaktuan:

Fatxada hau galerietan ezarriko da. Nahiz eta termikoki babestuta ez egon, eraikinaren barnean kokatzen da, beraz ez ditu iragazgaitzasun eskakizun altuak izango. Orri nagusi meheago bat planteatzen da, 19cm-koa, eskakizun termikoak bakarrik betetzen dituen. Beharrezko puntuetan lurrinaren aurkako hezia ezarriko da baina lamina iragazgaitzarik ez. Isolatzaileari dagokionez, proiektu osoan bezala kanpotik ezarriko da. Fatxada honi buruzko informazio gehigarria xehetasunetan ageri.

3. Polikarbonato plakez osatutako aire ganberadun fatxada:

Fatxada honen kasuan, orri nagusiak lehen puntuan deskribatutako ezaugarri berak izango ditu. Honen ezberdintasuna ezartzen zaion 35 cm-ko "aire ganbera" da. Berez, polikarbonato plakak bigarren geruza baten moduan planteatzen dira, eraikina guztiz inguratzen dutelarik. Polikarbonato geruza eta orri nagusiaren artean zorrotak eta instalakuntzak garraiatzeko espazioa egotea nahi da proiektuan. Bigarren geruza honen goi atalean ere erretenak planteatzen dira, aldi berean aire ganberaren aireztapena bermatzen dutelarik. (Laban zentroa, Londres, erreferentzia bezala harturik).

Kanpo geruzaren 35 cm banatzearen bezte arrazoia estetikoak izango litzateke. Bi geruzadun fatxada inguratzailea bilatzen da zenbait puntutan banatzen direnak, erritmoa nolabait apurtzen dute eta argi jokuak lortuko dira gune diafanoetan. Kapa ezberdinak eta ezartzen diren instalazioak kaletik nabariko dira.

### - Barne banaketak eta akaberak:

Barne banaketei dagokionez sistema arinak eta desmontagarriak bilatzen dira etorkizunean eraikina erabileraz aldatzeko aukera izan dadin. Beraz, Pladur enpresako igeltsu kartoi plaka sistemak erabiliko dira. Gelen arteko banaketa puntuetan isolatzaile akustikodun sistema bikoitza ezarri beharko da. Sabai faltsuetan ere pladur sistemak erabiliko dira.

Barne akaberei dagokionez, gune hezeetan alikatatuak ezarriko dira. Gune publikoetan aldiz egur konglomeratuzko plakak ezarriko dira plano orokorretan ikusi ahal den moduan. Barnetik berotasun sentsazio bat bilatu nahi denez egur akabera horiek erabiliko dira.

### - Eraikinaren hutsarteak:

Hutsarteei dagokionez akordeon irekiduradun leihoak, leiho finkoak eta luzernarioak ezarri dira proiektuan. Gune publikoetako leiho guztiak finkoak izango dira. Geletan aldiz, irekitze aukera planteatu da. Fatxadetan ere bigarren geruza ate labainkor mekanikoen bitartez irekiko da (sistema mekanizatua). Beiretan aire ganberadun climalit sistema erabiliko da.

Luzernarioei dagokionez bakarrik azken solairuko geletan kokatuko dira, Velux enpresako soluzioa aukeratu da. Xehetasunetan garatuko da argi-zulo hauen xehetasuna.

- Laburbilduz, proiektuan materialtasunari dagokionez guneak gaur egun duen identitate industrial mantendu nahi da, bai forma aldetik bai materialtasun aldetik. Baina hau ez du esan nahi teknika berritzaileak ez direla erabiliko.

**ARAUDIAREN JUSTIFIKAZIOA HS1/HS5**

## **LIBURU ATALAK**

### **OSASUNGARRITASUN ATALAREN JUSTIFIKAZIOA**

HS-1 atalaren justifikazioa 1

HS-5 atalaren justifikazioa 15

## EKT-OD OS OSASUNGARRITASUNA

Memoriaren atal honetan soilik bi OS atalaren kapitulu ezarriko dira HO 1 eta HO 5 (euri uren kanporaketa). HE atala instalakuntza liburuan adieraziko da. Beraz, eraikuntza sisteman eragiten duten araudiaren atalak ezarriko dira ondoren.

### HO 1 atala

#### HEZETASUNAREN KONTRAKO BABESA

Ondoren EKT eraikuntza kode teknikitik, eraikuntza apropos bat burutu ahal izateko, osasungarritasun ataletik HO 1 hezetasunaren kontrako babes kapitulua justifikatuko da. Horretarako kodearen fragmentuak adieraziko dira bete beharreko espezifikazioak adieraziz. Justifikazio guztiak urdinez azalduko dira.

#### 1. Alderdi orokorrak

##### Aplikazio-esparrua

EKT honen aplikazio-esparru orokorrean jasotako eraikin guztietako lurrarekin kontaktua duten hormei eta zoruei eta kanpoko airearekin kontaktua duten itxiturei (fatxadak eta estalkiak) aplikatu behar zaie atal hau. *Zoru goratuak* lurrarekin kontaktua duten zorutzat hartzen dira. Aldameneko orubeetan eraiki ez delako edo aldamenekoena baino azalera handiagoa dutelako estali gabe gera-tuko diren mehelinak fatxadak direla jotzen da. Terrazen eta balkoien zoruak estalkiak direla jotzen da.

Azaleko eta zirrikietako kondentsazio-hezetasunen muga «OD-HE Energia aurrezte» dokumen-tuko HE 1 atalean (Energia-eskaria mugatzea) ezarritakoari jarraikiz egiaztatuko da.

##### Egiaztapen-prozedura

Atal hau aplikatzeko, jarraian agertzen den sekuentzia bete behar da.

2. ataleko diseinu-baldintza hauek betetzea, eraikuntza-elementuei dagozkienak:

- hormak:

haien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.1.2 ataleko zehaztapenekin, 2.1.1 atalean eskatutako *iragazgaitasun*-mailaren arabera; haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.1.3 atalean zehaztutakoekin;

- zoruak:

haien ezaugarriek bat etorri behar dute, 2.2.2 ataleko zehaztapenekin, 2.2.1 atalean eskatu tako *iragazgaitasun*-mailaren arabera; haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.2.3 atalean zehaztutakoekin;

- fatxadak:

fatxadak ezaugarriek bat etorri behar dute 2.3.2 ataleko zehaztapenekin, 2.3.1 atalean eskatu-tako *iragazgaitasun*-mailaren arabera; haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.3.3 atalean zehaztutakoekin

- estalkiak:

estalkien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.2 ataleko zehaztapenekin; haien *osagaien* ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.3 atalean zehaztutakoekin; haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.4 atalean zehaztutakoekin;

Drainatze-hodien, *horma partzialki estankoetan* iragazitako urak jasotzeko kanaleten eta xukatzeke ponpen neurriari dagozkien baldintzak, 3. atalean zehaztuak, betetzea. Eraikuntza-produktuei dagozkien baldintzak, 4. atalekoak, betetzea. Eraikuntza-baldintzak, 5. atalean zehaztuak, betetzea. Mantentze- eta kontserbazio-lanei dagozkien baldintzak, 6. atalekoak, betetzea.

## 2. Diseinua

### 2.1. Hormak

#### *Iragazgaitasun-maila*

Lurrarekin kontaktua duten hormei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila, lurreko eta jariatzeetako uraren aurkakoa, 2.1 taulan lortzen da, uraren presentziaren eta lurraren iragazkortasun-koefizientearen arabera.

Uraren presentzia izan daiteke: txikia, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren gainetik dagoenean; ertaina, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren sakonera berean dagoenean edo haren azpitik bi metro baino gutxiagora; handia, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren azpitik bi metro edo gehiagora dagoenean;

Proiektu honen kasuan, uraren presentzia altua izango da, beraz 2.1 taularen arabera 5 mailako iragazkortasun koefizientea izan beharko du sotoko horma. Eraikina Nerbioi ibaiaren alboan kokatzen da. Ere kontuan izan beharko da irla guztia 3 metro altxatuko dela proiektu hau burutu baino lehen, beraz koefiziente hau txikiagoa izango litzateke. Dena de segurtasunaren aldetik jokatzu egoera kaxkarrena aukeratuko da.

**Tabla 2.1 Grado de impermeabilidad mínimo exigido a los muros**

Presencia de agua	Coeficiente de permeabilidad del terreno		
	$K_s \geq 10^{-2}$ cm/s	$10^{-5} < K_s < 10^{-2}$ cm/s	$K_s \leq 10^{-5}$ cm/s
<b>Alta</b>	5	5	4
<b>Media</b>	3	2	2
<b>Baja</b>	1	1	1

## Eraikuntza-irtenbideen baldintzak

Horma-motaren, iragazgaizpen-motaren eta iragazgaitasun-mailaren arabera eraikuntza-irtenbide bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.2 taulatik lortzen dira. Lauki belztuak irtenbide ez-onarga-rriei dagozkie; lauki zuriak, berriz, dagozkien iragazgaitasun-mailentzat inolako baldintzarik eska-tzen ez zaien irtenbideei.

### 2.2 taula

Hormentzako irtenbideen baldintzak

Tabla 2.2 Condiciones de las soluciones de muro

	Muro de gravedad			Muro flexorresistente			Muro pantalla			
	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco	
Grado de impermeabilidad	≤1	I2+D1+D5	I2+I3+D1+D5	V1	C1+I2+D1+D5	I2+I3+D1+D5	V1	C2+I2+D1+D5	C2+I2+D1+D5	
	≤2	C3+I1+D1+D3 <sup>(1)</sup>	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1+D1+D3	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤3	C3+I1+D1+D3 <sup>(2)</sup>	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1+D1+D3 <sup>(2)</sup>	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤4		I1+I3+D1+D3	D4+V1		I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
	≤5		I1+I3+D1+D2+D3	D4+V1 <sup>(1)</sup>		I1+I3+D1+D2+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1

<sup>(1)</sup> Solución no aceptable para más de un sótano.  
<sup>(2)</sup> Solución no aceptable para más de dos sótanos.  
<sup>(3)</sup> Solución no aceptable para más de tres sótanos.

Proiektuan horma flexo erresistente bat erabiliko da, beraz, kanpoko irisgarritasuna adieraziko da. Hurrengo atalak bete beharko ditu: I1+I3+D1+D2+D3. Ez da horma partzialki estankoa izango.

### Hona hemen baldintzak, multzo homogeneotan sailkatuta.

C) Hormaren osaera:

- C1. Horma in situ eraikitzen denean, hormigoi hidrofugoa erabili behar da.
- C2. Horma in situ eraikitzen denean, loditasun fluidoko hormigoia erabili behar da.
- C3. Horma fabrikakoa denean, bloke edo adreilu hidrofugatuak eta mortero hidrofugoa erabili behar dira.

Kanpoko iragazgaitasuna ezarriko da, dena den hormigoi hidrofugoa erabiltzea komenigarria denez, ezarriko da proiektuan.

Taulatik lortutako irizpideak jasoko dira EKT-OD aren justifikazio atal honetan, derrigorrezkoa delarik hauek betetzea.

I) Iragazgaizpena:

Ondren, soilik 2.2 taulatik ateratako derrigorrezko baldintzak azalduko dira:

I1. Iragazgaitzeko, horma xafla iragazgaizgarri bat jarriko da, edo, *in situ*, zuzenean emango da produktu likidoren bat, hala nola polimero akrilikoak, kautxu akrilikoak, erretxina sintetikoak edo poliesterra. Barrutik Kanpotik xaflaz iragazgaituz gero, xafla itsatsia denean, *puntzonaketaren kontrako geruza* bat jarri behar da haren kanpoko aldean; itsatsia ez denean, bi aldeetan jarriko zaio *puntzonaketaren kontrako geruza*. Bi kasuetan, drainatze-xafla bat jarri gero, ez dago kanpoaldean *puntzonaketaren kontrako geruza* jarri beharrik. Aplikazio likidoen bidez iragazgaitzen bada, iragazgaizpenarekin kontaktu zuzena duen drainatze-xafla bat jarri ezean, babes-geruza bat jarri behar da kanpoko aldean. Babes-geruza *geotextil* batez osatua izan daiteke, edo armadura batez sendotutako morteroz.

Lamina iragazgaitza kanpotik ezarriko da proiektu honen kasuan. Drenai xafla ere ezarri beharko da.

I3. Horma fabrikakoa denean, barruko aldea estaldura hidrofugoarekin estali behar da; adibidez, mortero hidrofugozko geruza estaligabe batekin, igeltsu higroskopikorik gabeko kartoi-igeltsuzko orri batekin edo beste material ez higroskopiko batekin.

Ez da fabrikako horma, beraz ez da I3 ataleko eskakizuna bete behar.

D) Drainatzea eta hustea:

D1. Drainatze-geruza bat eta iragazte-geruza bat jarri behar dira hormaren eta luraren artean, edo, iragazgaizpen-geruza bat dagoenean, haren eta luraren artean. Drainatze-geruza modu batean baino gehiagotan egin daiteke: drainatze-xafla batez, legarrez, buztin porotsuzko bloke-fabrika batez edo funtzio bera betetzen duen beste material batez. Drainatze-geruza xafla bat denean, xaflaren goiko errematea babestu egingo da, prezipitazio- eta jariatze-urari sartzen ez uzteko.

D2. Hormatik hurbil, drainatze-putzu bat jarriko da 50 metrotik behin, gehienez. Putzuaren barruko diametroak 0,7 m edo gehiago izan behar du; iragazte-geruza bat izango du, material finak herresta daitezela ekiditeko, eta, orobat, xukatze bi ponpa, ura saneamendu-sarera edo berriz erabiltzeko jasotzen duen edozein sistemataraz husteko.

D3. Hormaren hasieran drainatze-hodi bat jarri behar da, saneamendu-sarera edo berriz erabiltzeko jasotzen duen edozein sistemataraz konektatua, eta, lotura hori drainatze-sarea baino gorago dagoenean, xukatze bi ponpa dituen ponpaketa-ganbera bat ere jarri behar da, gutxienez.

Hiru espezifikazio hauek proiektuan beteko dira, xehetasun planoetan argi adieraziko da azaldukoak. Drenai tutua lamina geotextil baten bitartez inguratuko da ura soilik filtratuz.

## Puntu berezien kondizioak

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatzeak kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

Bakarrik ezarriko dira derrigorrez bete beharko diren atalak. Ondoren adieraziak.

### 2.1.3.1. HORMAREN ETA FATXADEN ARTEKO ELKARGUNEAK

Ondoren bakarrik lamina iragazgaitza kanpotik ezarritako baldintzak adieraziko dira:

3. Horma kanpoaldetik iragazgaitzen denean, haren gaineko fatxada hasten den gunean, iragazgaizgarria kanpoko zoru-mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora arte luzatu behar da, eta iragazgaizgarriaren goiko errematea 2.4.4.1.2 atalean zehaztu bezala egin behar da, edo zokalo bat jarri, 2.3.3.2 atalean zehaztutakoaren arabera.

Errematea zenbait puntutan lamina iragazgaitzaren bitartez burutuko da, edo eta orri bakarrek fatxadetan zokalo baten bitartez.

4. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak eta, orobat, jarraitutasun- edo eten-bandak antolatzeak kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

### 2.1.3.4. EROANBIDEAK PASATZEKO MODUA

1. Babes-hodiak haien eta eroanbideen artean behar besteko tartea izateko moduan jarriko dira, exekuzio-tolerantzia izan dadin eta hormaren eta eroanbidearen artean izan daitezkeen mugimendu diferentzialetarako aukera izan dadin.

2. Eroanbidea elementu malguekin finkatuko da horman.

3. Hormaren eta babes-hodiaren artean, iragazgaizgarri bat jarri behar da, eta babes-hodiaren eta eroanbidearen arteko tartea profil hedagarri batekin edo konpresioarekiko erresistentea den mastika elastiko batekin zigilatu behar da.

Eroanbideak eskakizun hauek bete beharko dituzte, hauek ur zorrotenak eta saneamendu tutueriak eramateko erabiliko dira.

### 2.1.3.5. IZKINAK ETA TXOKOAK

1. Bi plano iragazgaitzuren arteko elkarguneetan, erabili den iragazgaizgarriaren material bereko errefortzu banda edo -geruza bat jarri behar da, gutxienez 15 cm-ko zabalerakoa, ertzean zentratua.

2. Errefortzu-bandak hormaren iragazgaizgarria baino lehen jartzen direnean, inprimazio bat emango zaie bande, eta ondoren euskarriari itsatsiko zaizkio.

### 2.1.3.6. JUNTURAK

In situ hormigoitutako hormetan, berdin dio xflaz nahiz produktu likidoz iragazgaitzuek dauden, juntura bertikalak eta horizontalak iragazgaitzeko, banda elastiko bat jarriko da, junturaren bi aldeetako aurrealdeetan landatua.

Bakarrik bete egin beharko da espezifikazio hau, in-situ burututako sotoko horma delako.

## 2.2. Zoruak

### 2.2.1. IRAGAZGAIKTASUN-MAILA

1. Lurrarekin kontaktua duten zoruak eskatzen zaien gutxienezko iragazgaitasun-maila, lurreko eta jariatzeetako uraren aurkakoa, 2.3 taulan lortzen da, uraren presentziaren (2.1.1 atalean oinarrituz zehaztua) eta lurraren iragazkortasun-koefizientearen arabera.

Tabla 2.3 Grado de impermeabilidad mínimo exigido a los suelos

Presencia de agua	Coeficiente de permeabilidad del terreno	
	Ks > 10 <sup>-5</sup> cm/s	Ks ≤ 10 <sup>-5</sup> cm/s
Alta	5	4
Media	4	3
Baja	2	1

Sotoko hormaren egoeran bezala kasu kaxkarrena hartuko da segurtasunaren alde jokatu. Eremua Nerbioi ibaitik gertu kokatzen da, beraz uraren presentzia altua izango dela ondoriozta dezakegu.

### 2.2.2. Eraikuntza-irtenbideen baldintzak

1. Horma motaren, zoru motaren, lurrean egiten den esku-hartze motaren eta iragazgaitasun-mailaren arabera eraikuntza-irtenbide bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.4 taulatik lortzen dira. Lauki belztuak irtenbide ez-onargarriak dagozkie; lauki zuriak, aldiz, dagozkien iragazgaitasun-mailentzat inolako baldintzarik eskatzen ez zaien irtenbideei.

Tabla 2.4 Condiciones de las soluciones de suelo

		Muro flexorresistente o de gravedad								
		Suelo elevado			Solera			Placa		
		Sub-base	Inyecciones	Sin intervención	Sub-base	Inyecciones	Sin intervención	Sub-base	Inyecciones	Sin intervención
Grado de impermeabilidad	≤1			V1		D1	C2+C3+D1		D1	C2+C3+D1
	≤2	C2		V1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1
	≤3	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D3+D4	C1+C2+C3+D1+D2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+C1+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+C1+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+S1+S2+S3	C1+C2+D1+D2+S1+S2+S3
	≤4	I2+S1+S3+V1	I2+S1+S3+V1+D4		C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S1+S2+S3
	≤5	I2+S1+S3+V1+D3	I2+P1+S1+S3+V1+D3		C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3		C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S1+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S1+S2+S3

Proiektuan solera armatu bat ezarriko da Sub-Base soluzioa dela medio: sodio-bentonitazko geruza, lurraren azpian jarria, garbitze-hormigoia gainean. Beraz ondorengo eskakizunak bete behar dira:

C2+C3+I2+D1+D2+P2+S1+S2+S3

## 2. Hona hemen baldintzak, multzo homogeenotan sailkaturik.

Aurreko atalean bezala soilik bete beharreko eskakizunak jasoko dira justifikazio atal honetan.

C) Zoruaren osaera:

C2. Zorua *in situ* eraikitzen denean, uzkurtze txikiko hormigoia erabili behar da.

C3. Zoruaren hidrofugazio osagarri bat egin behar da, haren gainazal amaituaren gainean poroak betetzeko produktu likido bat emanaz.

I) Iragazgaizpena:

I2. Horma flexoerresistentearen kasuan, zapataren oinarria, eta grabitate-hormaren kasuan, hormaren oinarria, iragazgaiztu egin behar dira, garbitze-hormigoia geruzaren gainean xafla bat jarri. Xafla itsatsi egiten bada, haren gainean *puntzonaketaren kontrako geruza* bat jarri behar da. Itsasten ez bada, bi aldeetatik babestu behar da xafla, *puntzonaketaren kontrako geruzekin*. Zoruaren iragazgaizpen-xaflaren eta hormaren edo zapataren oinarriaren arteko elkarguneak zigilatu egin behar dira.

Dena den azpitik ere iragazgaiztu egingo da solera proiektuan, beti ere segurtasunaren aldetik jokatu.

D) Drainatzea eta hustea:

D1. Zoruaren azpiko lurraren gainean drainatze-geruza bat eta iragazte-geruza bat jarriko dira. Drainatze-geruza gisa enkatxo bat erabiliz gero, polietilenoazko xafla bat jarri behar da haren gainean.

D2. Zoruaren azpiko lurraren gainean drainatze-hodiak jarri behar dira, saneamendu-sarera edo ura berriz erabiltzeko jasotzen duen edozein sistematarako konektatuak, eta lotura hori drainatze- sarea baino gorago dagoenean, xukatzeko bi ponpa dituen ponpaketa-ganbera bat ere jarri behar da, gutxienez.

Drenai sistema ere soleraren azpien ezarri egin behar da proiektuan, tutu porotsuak lamina geotextilen bitartez estaliak egon behar dira.

P) Tratamendu perimetrikoa:

P2. Plakaren edo zolataren ertza horman landatu behar da.

S) Junturen zigilatzea:

S1. Zigilatu egin behar dira hormaren eta zoruaren iragazgaizpen-xaflen arteko elkarguneak, eta, orobat, hormaren eta harekin kontaktua duten zimenduen azpiko oinarrian jarritako iragazgaizpen-xaflen arteko elkarguneak.

S2. Zoruaren juntura guztiak PVC-bandarekin zigilatu behar dira, edota kautxu hedagarritzko edo sodio-bentonitazko profilekin.

S3. Zoruaren eta hormaren arteko elkargune guztiak zigilatu egin behar dira, PVC-bandarekin edota kautxu hedagarritzko edo sodio-bentonitazko profilekin, 2.2.3.1 atalean ezarritakoari jarraikiz.

### 2.2.3. Puntu berezien kondizioak

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak, eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatze kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

#### 2.2.3.1. ZORUAREN ETA HORMEN ARTEKO ELKARGUNEAK

1. 2.4 taulan ezarritako kasuetan, ondoren zehazten den bezala egin behar da elkargunea.

2. Zorua eta horma *in situ* hormigoitu direnean, pantaila-hormen kasuan izan ezik, bien arteko juntura banda elastiko batekin zigilatu behar da, banda hori hormigoizko masan landaturik, junturaren bi aldeetan.

Proiektuan ez da pantaila horma planteatu beraz bakarrik 2. espezifikazioa bete behar izango da.

#### 2.2.3.2. ZORUEN ETA BARNE-PARTIZIOEN ARTEKO ELKARGUNEAK

1. Zorua barruko aldetik iragazgaizten denean, barne-partizioa ez da iragazgaizpen-geruzaren gainean bermatuko, haren babes-geruzaren gainean baizik.

Proiektu honen kasuan kanpoaldetik burutuko da lamina iragazgaitzaren ezarpena, beraz ez da espezifikazio hau bete behar.

## 2.3. Fatxadak

### 2.3.1. IRAGAZGAIZTASUN-MAILA

1. Prezipitazioak ez sartzeko fatxadei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila 2.5 taulan ezarrita dago, eraikina dagoen tokiari dagokion batez bestekoen zona plubiometrikoaren eta haizearekiko esposizio-mailaren arabera. Parametro horiek honela zehazten dira:

a) batez bestekoen zona plubiometrikoa 2.4 iruditik lortzen da;

b) haizearekiko esposizio-maila 2.6 taulatik lortzen da, eta faktore hauen arabera zehazten da: eraikinaren garaiera lurrarekiko, kokalekuari dagokion zona eolikoa (2.5 iruditik lortutakoa) eta eraikina dagoen inguru mota, zeina, EgS oinarritzko dokumentuan ezarritako sailkapenaren arabera, I., II. edo III. motako lurra denean E0 izango baita, eta gainerako kasuetan, berriz, E1.

— I. motako lurra: Itsas bazterra edo laku bazterra, haizearen norabidean gutxienez 5 km-ko ur-zabaleko hedadura duena.

— II. motako lurra: Landa-lur laua, oztopo edo zuhaitzi nabarmenik gabekoa.

— III. motako lurra: Landa-eremu malkartsua edo laua, zenbait oztopo bakan dituen, hala nola zuhaitzak edo eraikin txikiak.

— IV. motako lurra: Hirigunea, industriagunea edo basogunea.

— V. motako lurra: Hiri handietako negozioguneak, eraikin altu ugariak.



### 2.5 taula

Fatxadek izan beharreko gutxieneko iragazgaitasun-maila

Eta

### 2.4 irudia

Urteko indize pluviometrikoaren arabera batez bestekoen zona pluviometrikoak

		Zona pluviométrica de promedios				
		I	II	III	IV	V
Grado de exposición	V1	5	5	4	3	2
	V2	5	4	3	3	2
	V3	5	4	3	2	1




Figura 2.4 Zonas pluviométricas de promedios en función del índice pluviométrico anual




Figura 2.5 Zonas eólicas

Beraz, EKT-ak eskeinitako irudiak aztertu ondoren, hurrengo ondoriozta dezakegu:

- Gune eolikoa: C guna

Tabla 2.6 Grado de exposición al viento

		Clase del entorno del edificio					
		E1			E0		
		Zona eólica			Zona eólica		
		A	B	C	A	B	C
Altura del edificio en m	≤15	V3	V3	V3	V2	V2	V2
	16 - 40	V3	V2	V2	V2	V2	V1
	41 - 100 <sup>(1)</sup>	V2	V2	V2	V1	V1	V1

<sup>(1)</sup> Para edificios de más de 100 m de altura y para aquellos que están próximos a un desnivel muy pronunciado, el grado de exposición al viento debe ser estudiado según lo dispuesto en el DB-SE-AE.

- Beraz haizearekiko esposizio maila: V2 izango da, eraikinak 14 metroko altuera duelako punturik altuenean. (E0)
- Gune pluviometrikoa: II dela ikusi daiteke taulan. Bilbon kokatzen da. Beraz gune eolikoa E0
- Beraz iragazgaitasun maila 4 izan beharko da.

Ondoren espezifikazio eta betebeharrak adieraziko dira arauditik fragmentuak aterata.

### 2.3.2. Eraikuntza-irtenbideen baldintzak

1. Kanpoko estaldura izatearen ala ez izatearen eta iragazgaitasun-mailaren arabera eraikuntza-irtenbide bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.7 taulatik lortzen dira. Zenbait kasutan, baldintza horiek bakarrak dira; beste batzuetan, berriz, hautazko baldintza multzoak daude.

Tabla 2.7 Condiciones de las soluciones de fachada

		Con revestimiento exterior		Sin revestimiento exterior			
Grado de impermeabilidad	≤1	R1+C1 <sup>(1)</sup>		C1 <sup>(1)</sup> +J1+N1			
	≤2			B1+C1+J1+N1	C2+H1+J1+N1	C2+J2+N2	C1 <sup>(1)</sup> +H1+J2+N2
	≤3	R1+B1+C1	R1+C2	B2+C1+J1+N1	B1+C2+H1+J1+N1	B1+C2+J2+N2	B1+C1+H1+J2+N2
	≤4	R1+B2+C1	R1+B1+C2	R2+C1 <sup>(1)</sup>	B2+C2+H1+J1+N1	B2+C2+J2+N2	B2+C1+H1+J2+N2
	≤5	R3+C1	B3+C1	R1+B2+C2	R2+B1+C1	B3+C1	

<sup>(1)</sup> Cuando la fachada sea de una sólo hoja, debe utilizarse C2.

Proiekturako aukeratutako fatxada planoetan eta materialen eta eraikuntza elementuen atalean deskribatu den moduan, horri bikoitzaduna izango da. Kanpoko orria polikarbonato xafraz osatutako azpi egitura bat izango da. Barne orria aldiz, era konbentzionalago batean sortutako termoartzillazko blokez osatu egingo da. Aire ganberak 20zm-ko zabalera izango du bertatik ur zorrotiak garraiatzeko aukera izan nahi delako.

Beraz, fatxadari dagokionez eta taulan lortutako iragazgaitasun koefizientea dela medio ondorengo betebeharrak aztertuko dira proiektua garatu ahal izateko.

Ere aipatu beharra dago, bigarren orria ez dela justifikaziorako kontsideratuko. Bakarrik barneko orria hartuko da. Akabera jarraiadun fatxada izango delarik. Honen aukeraketa barnetik ezarri nahi diren ur zorrotzen ondorioa da.

Beraz ondorengo eskakizunen konposizioa beteko da:

R1+B2+C2

C2 aukeratu da horri bakarrekoa bezala kontsideratzen delako fatxada.

R) Kanpoko estaldurak ura sartzen ez uzteko duen erresistentzia:

R1. Kanpoko estaldurak ura sartzen ez uzteko erresistentzia ertaina izan behar du, gutxienez. Halako erresistentziaduntzat jotzen dira honako hauek:

— estaldura jarraituak, ezaugarri hauek badituzte:

- 10-15 mm bitarteko lodiera, plastikozko geruza mehe batez egindako akaberakoak izan ezean;
- egonkortasuna bermatzeko bezain itsatsia egotea euskarrira;
- lurrunarekiko iragazkortasun nahikoa izatea haren eta orri nagusiaren artean lurruna metatzeak eragindako narriadura ekiditeko;
- euskarriaren mugimenduetara moldatzea eta pitzaduraren aurrean portaera onargarria izatea;
- isolatzailea orri nagusiaren kanpoaldean duten fatxadetan jartzen denean, isolatzailearekiko bateragarritasun kimikoa izatea eta beira-zuntzezko edo poliesterezko mailasare batez egindako armadura bat jartzea.

Eskakizun hauek beteko dira proiektuak, plastikozko geruza mehea erabiliko delarik estaldura moduan.

B) Uraren iragazpenaren kontrako hesiak ura sartzen ez uzteko duen erresistentzia:

B2. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia ertaineko hesi bat jarri behar da, gutxienez. Mota horretakoak dira honako hauek:

— isolatzaile ez hidrofiloa, orri nagusiaren kanpoko aldean jarria.

Isolatzailea ez da hidrofiloa, Rockwool enpresako arroka artilea. Inpermeabilizatua.

C) Orri nagusiaren osaera:

C2. Lodiera handiko orri nagusi bat erabili behar da. Halakotzat jotzen da fabrika-obra bat, morteroz hartua, ezaugarri hauek dituen:

— 24 cm zeramikazko bloke, hormigoizko bloke edo harri natural.

Neurri minimoa betetzen da, 28 cm-ko bloke zeramikoak ezarriko dira.

Berez, aipatutako eskakizun guztiak beteko ditu eraikinaren fatxada.

### 2.3.3. Puntu berezien kondizioak

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak eta, orobat, jarraitutasun- edo eten-bandak antolatzeke baldintzak, erabilitako iragazgaitzen-sistemari dagozkionak.

#### 2.3.3.1. DILATAZIO-JUNTURAK

1. Orri nagusian dilatazio-junturak jarriko dira, halako moldez non egitura-juntura bakoitzak bat egingo baitu haietako batekin, eta ondoz ondoko dilatazio-junturen arteko distantzia gehienez 2.1 taulan agertutakoa izango baita (eutsitako fabrika-obren mugimendu-junturen arteko distantzia, «EgS-F Egituren segurtasuna: Fabrika» oinarritzko dokumentukoa).

2. Orri nagusiaren dilatazio-junturatan zigilatzaile bat jarri behar da, junturan sartutako betegarri baten gainean. Betegarri eta zigilatzaileen materialek behar adinako elastikotasuna eta itsasgarritasuna izan behar dute orriari aurreikusitako mugimenduak absorbatzeko, eta eragile atmosferikoekiko iragazgaitz eta erresistenteak izan behar dute. Zigilatzailearen sakonerak 1 cm edo handiagoa izan behar du, eta lodieraren eta zabalaren arteko erlazioa 0,5-2 bitartekoa. Fatxada zarpiatuetan, zigilatzea berdindu egin behar da orri nagusi zarpiatu gabearen paramentuarekin. Dilatazio-junturatan metalezko xaflak erabiltzen direnean, junturaren bi aldeetan 5 cm-ko horma-banda, gutxienez, estaltzeko moduan jarri behar dira; xafla bakoitza mekanikoki finkatuko da banda horretan eta hari dagokion muturra zigilatu egingo da (ikus 2.6 irudia).

3. Kanpoko estaldurak dilatazio-junturak izango ditu, hartara ondoz ondoko junturen artean aski distantzia izan dadin estaldura ez pitzatzeko.

Kanpoko estaldura, bigarren orriko polikarbonato laminak izango dira, eta hauek, haien artean dilatazio banaketa espazioa izango dute, mugimenduak ekiditu ahal izateko. Barne orria, hau da, orri nagusiak ere dilatazio junturak izan beharko ditu akabera jarraiadun orria bezala planteatu delako.




Figura 2.6 Ejemplos de juntas de dilatación

Dilatazio junturak ondorengo irudiaren ezarpenak bete beharko dituzte. Dilatazio juntura hauek barneko orrian ezarriko dira, termo artzilla blokedun 29 cm-ko orrian hain zuzen.

#### 2.3.3.2. FATXADAREN HASIERA ZIMENDUETATIK

1. Hesi iragazgaitz bat jarri behar da, kanpoko zoruaren mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora fatxadaren lodiera guztia estaliko duena, kapilaritatearen ondorioz urak gora egin ez dezan, edo ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabili.

Hezi iragazgaitza ezarri da araudian aipatutako eremuetan



### 2.3.3.5. AIRE-GANBERA AIREZTATUAREN ETA FORJATUEN ETA BAOBURUEN ARTEKO ELKARGUNEAK

1. Forjatu batek edo baoburu batek ganbera eteten duenean, han sartutako edo kondentsatutako ura jasotzeko eta husteko sistema bat jarri behar da.

2. Ura jasotzeko sistema gisa elementu jarraitu iragazgarri bat erabiliko da (xafla, profil berezia eta abar), eta ganberaren hondoan jarriko da, kanpoalderanzko inklinazioarekin, halako moldez non goiko ertza hondotik 10 cm-ra izango baitu, gutxienez, eta ebakuazio-sistemaren punturik altuenaren gainetik 3 cm-ra, gutxienez (ikus 2.10 irudia). Xafla bat jartzen denean, haren lodiera guztia barne-orrian sartu behar da.

3. Ura husteko, sistema hauetako bat jarri behar da:

a) ura kanpoaldera eramateko hodi multzo bat, material estankozkoa, gehienez 1,5 m-ko tartea dagoela hoditik hodira (ikus 2.10 irudia).

b) lehenengo ilaran morterorik gabeko tarte-juntura multzo bat uztea, gehienez 1,5 m-ko tartearekin, zeinaren luzera guztian egongo baita, kanpoalderaino, ganberaren hondoan ura jasotzeko jarritako elementua.

ZKZ Hostel eraikin proiektuaren kasuan ez da aire ganbera moztuko, beraz adierazitako hiru ezaugarriak ez dira kontuan izan behar, ura kanporatzeko sistema bakarria fatxadaren hasieran ezarri beharko da, lamina iragazgaitza ere duelarik. Elementu hau eraikuntza xehetasunetan adieraziko da.

### 2.3.3.6. FATXADAREN ETA AROTZERIAREN ARTEKO ELKARGUNEA

Fatxadaren iragazgaitzasun maila 4 izango da, beraz ez dago zertan atal honen lehen puntua bete behar. Baina arotzeria kanpoko azala baino barnerago ezartzen denez ondorengo espezifikazioak bete egin beharko dira.

2. Markoaren eta hormaren arteko juntura kordoi batekin zigilatu behar da, zeina horman sartuko baita, bi ertz paraleloren artean ahokatua geratzeko moduan.

3. Arotzeria fatxadaren kanpoaldeko paramentuarekiko atzeraemana dagoenean, leiho-koska isurri batekin errematatu behar da, hara heltzen den euri-ura kanpoaldera husteko eta haren azpiko fatxadaren zatira irits dadila saihesteko. Bestalde, baoburuan tantakin bat jarriko da, euri-ura burualdearen beheko aldetik arotzeara joan ez dadin, edo ondorio berdina sortzen dituzten irtenbideak.

4. Isurriak kanpoalderanzko 10°-ko malda izan behar du, gutxienez, eta iragazgaitza izango da, edo markoari edo hormari finkatutako hesi iragazgaitz baten gainean jarriko da (marko edo horma horrek leiho isurkiaren atzeko aldetik eta bi aldeetatik luzatu behar du eta kanpoalderanzko 10°-ko malda izan behar du, gutxienez). Isurriak tantakin bat izan behar du irtengunearen azpiko aldean, fatxadaren kanpoaldeko paramentutik gutxienez 2 cm-ra bananduta, eta zangotik gutxienez 2 cm-ra banatuta izango du aldea (ikus 2.12 irudia).

5. Tantakinak dituzten piezen junturek haren forma bera izan behar dute, haien bitartez fatxada aldera zubirik ez sortzeko.

Xehetasun planoetan argi ikusi daiteke zerrendatutako lau atal hauek betetzen direla, goteroiak, maldak eta beharrezkoak diren iragazgaitzasun laminak ezarriz. Ondoren EKT-OD-k eskaintzen dituen soluzioen eskema adieraziko da. 2.12. irudia hain zuzen.




Figura 2.12 Ejemplo de vierteaguas

### 2.3.3.7. KARELAK ETA FATXADETAKO GOIKO ERREMATEAK

1. Karelak isurriekin errematatu behar dira, haien goiko aldera heltzen den euri-ura husteko eta haren azpian dagoen fatxada-zatira hel dadin ekiditeko. Halakorik ezean, ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabiliko da.

2. Isurriek, gutxienez, 10°-ko inklinazioa izan behar dute, ura doan alderako irtenguneen azpiko aldean tantakinak izan behar dituzte, kareleko dagozkien paramentuetatik gutxienez 2 cm-ra bananduak, eta iragazgaitzak izan behar dute edo kanpoalderanzko 10°-ko malda (gutxienez) duen hesi iragazgaitz baten gainean jarri behar dira. Dilatazio-junturak jarri behar dira bi piezatik behin, harrizkoak edo aurrefabrikatuak badira, eta 2 metrotik behin, zeramikazkoak badira. Isurriaren arteko junturak zigilatze egoki batekin iragazgaitz izateko moduan egingo dira.

Erremateak pieza metalikoekin planteatu dira proiektuan, pieza berezi bat diseinatu da erreten moduan funtzionatuko duena, aldi berean fatxadaren aireztapena errejillak ezarriko dira. Dena den aipatutako ezaugarri guztiak beteko ditu. Xehetasunetan erreten hau definituko da.

### 2.3.3.8. FATXADARA AINGURATZEA

1. Barandak, mastak eta halako elementuen ainguraketak fatxadaren plano horizontal batean egiten direnean, urari bertatik sartzen ez uzteko moduan egingo da ainguraketaren eta fatxadaren arteko juntura; alegia, zigilatuz, gomazko elementu baten bidez, metalezko pieza baten bidez edo ondorio berdina sortzen duen beste elementu baten bidez.

Hostel-eko gelen terrazetan ezarriko dira barandak, ainguraketa kodigo teknikoan aipatzen den moduan burutuko da. Metalezko pieza izango da aukeratutako aukera. Eskakizunak bete beharko dira.

### 2.3.3.9. TEILATU-HEGALAK ETA ERLAITZAK

1. Teilatu-hegal eta erlaitz jarraituek ura husteko malda bat izan behar dute kanpoalderantz, 10º-koa gutxienez.

Proiektuan ez daude 20cm baino erlaitza luzeagoak beraz ez dituzte kodigo teknikoan adierazten diren eskakizunak bete behar (atal honetan).

3. Tantakinak dituzten piezen junturek haren forma bera izan behar dute, haien bitartez fatxada aldera zubirik ez sortzeko.

### 2.4. Estalkiak

Proiektuaren estalkia aurreko material eta diseinu deskribapen atalean aipatu den moduan sandwich panel baten itxura duen Metalrcok sistema erabiliko da. Rockwool enpresak eskainitakoa. Estalki inklinatua izango da altxaeretan ikusi ahal daitekeen moduan, bi uretara diseinatua. Akabera zink junta altxatuazko laminez burutuko da. (xehetasun planoetan definitua).

#### 2.4.1. Iragazgaitasun-maila

1. Estalkiei iragazgaitasun-maila bakarra eskatzen zaie, eta ez du zerikusirik klima-faktoreekin. Edozein eraikuntza-irtenbidek iragazgaitasun-maila hori iristen du baldin eta ondoren zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Beraz, EKT-ko ondorengo eskakizunak beteko dira. Ondoren soilik proiektuan eragina duten ezaugarri eta betebeharrak jasoko dira.

#### 2.4.2. Eraikuntza-irtenbideen baldintzak

1. Estalkiek elementu hauek izan behar dituzte:

a) malda eratzeko sistema bat: estalkia laua denean, edo inklinatua denean eta haren euskarri erresistentearen malda ez dagoenean erabiliko den babes eta iragazgaitze motara egokitua;

b) lurrunaren kontrako hesi bat isolatzaile termikoaren azpi-azpian: «Energia aurrezte» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutako kalkuluaren arabera, elementu horretan kondentsazioak sortuko direla aurreikusten denean;

c) geruza bereizle bat isolatzaile termikoaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean;

d) isolatzaile termiko bat: «Energia aurrezte» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutakoari jarraikiz.

e) geruza bereizle bat iragazgaitasun-geruzaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean edo iragazgaitasun-geruza eta sistema ez itsatsietako euskarri-elementuak itsastea saihestu behar denean;

f) iragazgaitasun-geruza bat: estalkia laua denean edo inklinatua denean eta malda eratzeko sistemak ez duenean 2.10 taulan eskatutako inklinazioa edo babesgarriko piezen teilakatzea nahikoa ez denean;

Dena den lamina iragazgaitza ezarriko da, isolatzairenen gainean estankotasunaren alde jokatu.

j) teilatu bat, estalkia inklinatua denean, iragazgaitasun-geruza autobabestua denean izan ezik;

k) urak husteko sistema bat, erretenez, hustubidez eta gainezkabidez osatua egon daitekeena, OD-HO dokumentuko HO 5 atalean zehaztutako kalkuluaren arabera neurtua.

### 2.4.3. Osagaien baldintzak

#### 2.4.3.1. MALDAK ERATZEKO SISTEMA

1. Maldak eratzeko sistemak behar besteko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu eskakizun mekanikoei eta termikoei aurre egiteko, eta gainerako osagaietara eusteko eta haiek finkatzeko moduko osaera izan behar du.

2. Malda eratzeko sistema denean iragazgaitasun-geruzari eusten dion elementua, hura osatzen duen materialak bateragarria izan behar du material iragazgaitasun-geruzarekin eta, orobat, haren eta iragazgaitasun-geruzaren arteko lotura-moduarekin.

3. Terraza guneetan %1-5-eko malda ezarriko da, estalki zapalgarri moduan kontsideratzen delako. Hau, Hostel-eko areto komunitarioaren terrazan emango da batik bat.

4. Maldak eratzeko sistemak, estalki inklinatuetan, estalkiok iragazgaitasun-geruzarik ez dutenean, 2.10 taulan lortutakoa baino malda handiagoa izan behar du ura husteko elementuetarantz, teilatu motaren arabera.

Tabla 2.10 Pendientes de cubiertas inclinadas

			Pendiente mínima en %	
Tejado <sup>(1) (2)</sup>	Teja <sup>(3)</sup>	Teja curva	32	
		Teja mixta y plana monocanal	30	
		Teja plana marsellesa o alicantina	40	
		Teja plana con encaje	50	
	Pizarra		60	
	Placas y perfiles	Cinc		10
			Fibrocemento	10
		Sintéticos	Placas simétricas de onda grande	10
			Placas asimétricas de nervadura grande	25
			Placas asimétricas de nervadura media	10
		Galvanizados	Perfiles de ondulado grande	15
			Perfiles de ondulado pequeño	5
Perfiles de grecado grande			8	
Perfiles de grecado medio			10	
Perfiles nervados			15	
Perfiles de ondulado pequeño	5			
Perfiles de grecado o nervado grande	8			
Perfiles de grecado o nervado medio	10			
Aleaciones ligeras	Perfiles de nervado pequeño	5		
	Paneles	15		
		Perfiles de nervado medio	5	

Zink estalkia erabiliko da, beraz %10-eko malda minimoa ezarri behar da. Proiektua %20 malda minimoa dagoela aztertu da. Beraz, eskakizunak betetzen ditu.

#### 2.4.3.2. ISOLATZAILE TERMIKOA

1. *Isolatzaille termikoaren* materialak sistemaren eskakizun mekanikoen aurrean behar den sendotasuna emateko moduko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu.

2. *Isolatzaille termikoa* eta iragazgaizpen-geruza kontaktuan daudenean, bi materialok bateragarriak izan behar dute; bestela, *geruza bereizle* bat jarriko da bien artean.

Lamina iragazgaitza isolamenduaren gainetik ezarriko da, dena den aukeratutako isolatzailea (arroka artilea, rockwool) ez da hidrofila.

#### 2.4.3.3. IRAGAZGAIZPEN-GERUZA

1. Iragazgaizpen-geruza bat jartzen denean, hura osatzen duten materialetako bakoitzari dagozkion baldintzen arabera eman eta finkatu behar da.

2. Ondoren zehaztutako materialak erabil daitezke, edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein.

Ondorengo materiala erabiliko da proiektuan:

##### 2.4.3.3.1. Material bituminosoz eta bituminoso eraldatuz egindako iragazgaizpena

1. Xaflak oxiasfaltokoak edo betun eraldatuzkoak izan daitezke.

2. Estalkiaren malda % 15 baino gehiagokoa denean, sistema mekanikoki finkatuak erabili behar dira.

Zink estalki maldatsuan mekanikoki finkatuko dira.

3. Estalkiaren malda % 5-15 bitartekoa denean, sistema itsatsiak erabili behar dira.

Terrazetan malda txikiagoa izango denez, araudiak adierazten duen moduan sistema itsatsiak erabiliko dira.

#### 2.4.3.4. AIRE-GANBERA AIREZTATUA

  - o Sandwich zink estalkia → Rockwool
- \*Datu guztiak produktuen etxe komertzialeko katalogoetatik lortu dira.
- WinEva8 programa informatikoa erabili da ahal diren kalkuluak garatzeko.

#### 5. KALKULUAN JARRAITUTAKO IRIZPIDEAK (CTE→DB-SE)

##### a) Egoera limiteak

*“Se denominan estados límite aquellas situaciones para las que, de ser superadas, pueden considerarse que el edificio no cumple alguno de los requisitos estructurales para los que ha sido concebido.”*

Egituraren kalkuluan bi egoera limite aztertuko dira: ELS (Estado Límite de Servicio) eta ELU (Estado Límite Último). Beraz portiko bakoitzean bi egoera hauek kalkulatu beharko dira, kargei dagozkien maiorazioak ezarriz.

- ELU: Azken egoera limiteak bezeroentzako arrisku bezala kontsideratu ahal direnak dira, eraikina partzialki kaltetu edo honen kolapsoa gauzatu ahal dute. Portikoen kargetan, egoera honen kalkuluan, maiorazioak ezarri dira: Berezko pisua x 1,3 eta gainontzeko kargak x 1.5 maiorazioak aplikatuz, hauek hipotesien konbinazioetan ezarri egin dira.

Emaitzei dagokionez S275 altzairuaren erabilera burutzen denez kontuan izan beharko da aukeratutako perfilen tentsio maximoa ezin dela izan 2619 Kg/cm<sup>2</sup> baino handiagoa. Beraz honen arabera dimentsionatuko dira.

- ELS: Zerbitzu egoera limiteak bezeroen konforta eta erosotasuna; eta eraikinaren funtzionamendua kaltetu ahal duten egoerak dira, hau eraikinaren erabileraren arabera kontsideratu beharko da. Zerbitzu egoera limiteak

itzulgarriak edo atzeraezinak izan ahal dira, proiektu honetan, segurtasuna ziurtatzeko, atzeraezin moduan hartuko dira aldaketa eta kalte posible guztiak.

ELS aztertzeko hipotesien konbinazioak burutu dira kargak maioratu gabe, eta kalkuluen emaitzetan ondorengo datuak izan dira kontua: Obraren egoera, bezeroen konforta eta instalazio ekipo eta sistemen funtzionamendua kaltetu ahal dituzten deformazioak (Fletxak eta Desplomeak).

##### b) Akzioen konbinazioak

Akzioen konbinazioak burutu ahal izateko, lehenik eta behin, ezarriko diren akzioak definitu beharko dira. Garatuko diren portikoetan ondorengoak aztertzen direlarik:

- Eraikineko eraikuntza eta egitura elementuen berezko pisuak.
- Eraikinen erabileren arabera ezarritako gainkargak.\*
- Haizeak eragindako aldizko akzioak.\*
- Elurak eragindako aldizko akzioak.\*
- Autoen edo bestelako ibilgailuak sorrarazi ahal dituzten talka akzioak.\*

\*Akzioen atalena definituko dira hauen balioak.

Akzio hauek ezartzen direlarik limite egoera bakoitzerako hipotesi moduan kalisifikatu egin dira, ondoren, hauen konbinazioa burutu ahal izateko. Konbinazio hauek burutu ahal izateko kode teknikoan ezartzen diren maiorazio eta aldiberekotasun koefizienteak erabili egin dira, ondoren azalduko direnak.

Konbinazioak garatzeko aukeratutako metodologia ondorengo da, kontuan izanik aldaketa eta kalte guztiak atzeraezin bezala hartu direla:

*“Para cada situación de dimensionado y criterio considerado, los efectos de las acciones se determinarán a partir de la correspondiente combinación de acciones e influencias simultaneas, de acuerdo con los criterios que se establecen a continuación”*

*“Los defectos debidos a las acciones de corta duración que pueden resultar irreversibles, se determinaran mediante combinaciones de acciones, del tipo denominado característica, a partir de la expresión...”*

$$\sum_{j \geq 1} G_{k,j} + P + Q_{k,1} + \sum_{i > 1} \Psi_{0,i} \cdot Q_{k,1}$$

Beraz, azkzioen konbinazioak burutu ahal izateko Kode Teknikoko ondoren adieraziko diren datuak DB-SE 4.1 eta 4.2 tauletatik hartu egin dira.

##### 4.1 taulatik, Akzioentzako segurtasun koefiziente partzialak

Egiaztatze mota	Akzio mota	Ezarritako maiorazio koefizientea
Erresistentzia	Akzio iraunkorra:	1,35
	Berezko pisua	
	Akzio aldakorak	1,5

\*Adierazitako maiorazio koefiziente hauek, ELU egoera limitean ezarriko dira tentsio onargarrien kalkulua burutu ahal izateko. Hipotesietan ezarriko dira.

#### 4.2 taulatik, Aldibereotasun koefizienteak ( $\Psi$ )

	$\Psi_0$ , koefizienteak
Erabilera gaikargak, - Gune erresidentzialak - Gune administratiboak - Erabilera publikoko guneak	0,7 0,7 0,7
Elurra: - Altitudea < 1000m	0,5
Haizea	0,6

Beraz, hipotesien arabera eta egoera limitearen arabera ondorengo konbinazio taulak gartu dira portikoen kalkulua burutu ahal izateko:

ELS	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea	Talka
ELS-EG	1	1	0,5	0,6	1
ELS-ELU	1	0,7	1	0,6	1
ELS-HAIZ	1	0,7	0,5	1	1

ELU	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea	Talka
ELU-EG	1,35	1,5	0,75	0,9	1,5
ELU-ELU	1,35	1,05	1,5	0,9	1,5
ELU-HAIZ	1,35	1,05	0,75	1,5	1,5

ELU taulan, aipatu den moduan, maiorazio eta segurtasun koefizienteak ezarri dira.

#### c) Deformazioak

##### - GEZI ERLATIBOA:

Eraikinaren erabilera iraganean aldatzeko posibilitatea egotea nahi denez (beztelako erabilerak) 1/500 gezi erlatibo minimoa aukeratu da. Kalkuluetan lortutako emaitzak hau baino handiagoak izan beharko dira.

“Cuando se considere la integridad de los elementos constructivos, se admite que la estructura horizontal de un piso o cubierta es suficientemente rígida si, para cualquiera de sus piezas, ante cualquier combinación de acciones características, considerando solo las deformaciones que se producen después de la puesta en obra del elemento, la flecha relativa es menor que:

- 1/500 en pisos con tabiques frágiles (como los de gran formato, rasillones o placas) o pavimentos rígidos sin juntas.”

##### - DESPLAZAMENDU EDO DESPLOME HORIZONTALAK:

Ondorengo desplazamendu horizontalak hartu dira baliogarri moduan, araudiaren arabera minimoak ezarriz:

“Cuando se considere la integridad de los elementos constructivos, susceptibles de ser dañados por desplazamientos horizontales, tales como tabiques o fachadas rígidas, se admite que la estructura global tiene suficiente rigidez lateral, si ante cualquier combinación de acciones característica, el desplome (véase figura 4.1) es menor de:

a) *desplome total*: 1/500 de la altura total del edificio

b) *desplome local*: 1/250 de la altura de la planta, en cualquiera de ellas.”

Beraz, eraikinaren altuera totala 12,5 metro direla kontuan izanda, desplazamendu horizontal totala ondorengo izango da:  $12500/500 = 25\text{mm}$ -ko desplazamendu onargarria, ezin izango da gainditu. Barra isolatuak aldiz atalka aztertu beharko dira (hauen altueren arabera).

\*Azaldutako adierazpenak bi norabideetan bete beharko dira, bai altxaeran bai oinean. Horretarako portikoen korapiloak aztertu egin dira WinEva8 programan.




Figura 4.1 Desplomes

4.1 Irudia, desplazamendu horizontalak.

#### d) Eraikinean ezarriko diren akzioak

Hiru akzio mota ezarri dira eraikinaren kalkuluan Kode teknikoaren arabera: Akzio iraunkorrak, Akzio aldakorak eta Akzio akzidentalak.

##### - AKZIO IRAUNKORRAK:

###### o Berezko pisua:

“El peso propio a tener en cuenta es el de los elementos estructurales, los cerramientos y elementos separadores, la tabiquería, todo tipo de carpinterías, revestimientos (como pavimentos, guarnecidos, enlucidos, falsos techos), rellenos (como los de tierras) y equipo fijo.”

Berezko pisuari dagokion kargak **C eranskinean** dauden datuen arabera kalkulatu dira, hauek portiko bakoitzaren azalera tributarioaren arabekoak direlarik.

Elementua	Kargaren balioa Kn/m <sup>2</sup>
1.Forjatua: Txapa kolaborante forjatua	2,5 Kn/m <sup>2</sup>
2.Forjatua: Sandwich panela	1 Kn/m <sup>2</sup>
Zoru teknikoa	0,43 Kn/m <sup>2</sup>

Sabai faltsua	0,15 Kn/m <sup>2</sup>
Barne banaketa arinak	0,5 Kn/m <sup>2</sup>

\*Aukeratutako portikoetan ez daude fatxaden karga linealak, beraz ez dira datu bezala hartu, hauek zutabeetan zehar karga puntual bezala eragiten dute.

- AKZIO ALDAKORRAK:

o Erabilera gainkarga:

Erabilera gainkarga erabilera arrazoiengatik eraikinaren gainean grabitatu ahal duen edozein pisu izango da. Hauek lortzeko kode teknikoan eskaintzen den 3.1 taulatik datuak hartu dira, portiko bakoitzaren azalera tributarioaren arabera direlarik.

Eremua	Kargaren balioa Kn/m <sup>2</sup>
Gune erresidentzialak (Hostel-eko gelak)	2 Kn/m <sup>2</sup>
Gune administratiboak (zentroaren bulegoak)	2 Kn/m <sup>2</sup>
Estalkiaren erabilera (teknikoa)	0,5 Kn/m <sup>2</sup>
Tailerra, arte lanak garatzeko eremua	5 Kn/m <sup>2</sup>
Mediateka gunea (publikoa)	5 Kn/m <sup>2</sup>

Portikoaren arabera, azalera tributario ezberdinak egongo direnez balio ezberdinak ikertu ahal izango dira, hauen ezarpena portikoen kalkulu atalean garatzen delarik.

o Haizearen akzioa:

Haizearen eragin akzioa, orokorrean era perpendikular batean eragiten du haizearen kontrako edozein gainazalari, ondorengo formularen bitartez adierazten da:

$$Q_e = Q_b \times C_e \times C_p$$

**Q<sub>e</sub>** \_ Haizearen presio dinamikoa da, eta **0,5 kn/m<sup>2</sup>** balio simplifikatua hartu egin da kalkuluak burutzeko (hau era maiaoratuan ezartzeko intentzioarekin aukeratu da).

**C<sub>e</sub>**\_ Esposizio koefizientea deritzogu, kode teknikoko **3.4 taulan** ikusgai diren datuetatik ondorengo aukeratu da: **1,4-ko esposizio koefizientea** aukeratu da. IV gune urbano-industrialaren eta 6m base puntu altueraren arteko erlazioa hain zuzen.

**C<sub>p</sub>**\_ Koefiziente eolikoak kode teknikoko **3.5 taulatik** lortu dira haizearekiko perpendikularra den planoaren lerdentasunaren arabera. **C<sub>p</sub>=0,8** (presio koefizientea) **C<sub>s</sub>=-0,4** (sukzio koefizientea).

Beraz lortutako bi balioak:

- **Q<sub>e</sub>** (presio)=0,58 Kn/m<sup>2</sup>
- **Q<sub>e</sub>** (sukzio)= -0,29 Kn/m<sup>2</sup>

Adierazitako balio hauek, fatxadaren azalera tributarioaren arabera izango dira. Portikoen kalkuluetan adieraziko dira.

o Akzio termikoak:

Akzio termikoak ez dira proiektuan kontsideratuko, portiko guztiak eta eraikina bera 40 metro baino luzera laburragoak dituztelako. Luzera maximoa 36m-koa delarik.

o Elurraren eragin akzioa:

Nahiz eta Bilbon, segurtasun aldetik bakarrik 0,3 Kn/m<sup>2</sup>-ko kargak adierazi (kode teknikoko 3.8 taulan). Segurtasunaren aldetik jokatuz **0,5 Kn/m<sup>2</sup>**-ko elur karga planteatu da. Azalera tributarioaren arabera izango da.

- AKZIO AKZIDENTALAK:

o Talka akzioa:

Eraikinaren alboan karga eta deskargarako baliagarria den pabimentua diseinatu denez, talka arriskuari dagokion indarra adierazi beharko da. Hau karga puntual moduan definituko da egitura bertikalarekiko perpendikularrean, 0,6m-ko altuera batean. Kalkulurako ezarritako kargaren balioa **50KN**-ekoa izan da.

Irizpide guztiak definitu ondoren portikoen azterketa burutuko da perfil guztien kalkulu emaitzak adieraziz. Lehen aipatu den moduan kalkulu bi egitura elementu nagusietan banatuko da.

**ZKZ 1.EGITURAKALKULUA**

# 1º EGITURA ELEMENTUAREN KALKULUA\_Egitura berria.


## DATU OROKORRAK:

- IZAERA: Egitura portikatu metalikoa, altzairua.
- ALTZAIRUA: S275, 275 N/mm<sup>2</sup>
- FORJATU KOLABORANTEA:
  - o S275 altzairua
  - o Konektoreen diametroa\_2cm
  - o Konektoreen tentsio onargarria\_275 N/mm<sup>2</sup> (maioratua)
  - o Konektoreen minorazio koefizientea\_1,25
  - o Forjatuaren lodiera: 15zm
  - o Gainkarga onargarria\_17 Kn/m<sup>2</sup>
  - o Forjatuaren kalkuluan erregistratutako gainkarga maximoa\_10 Kn/m<sup>2</sup>
  - o Habexken ezarpena: 2m-ro habexkak ezarriko dira (Incoperfil katalogoaren arabera)


## EGITURA ELEMENTUEN DESKRIBAPENA:

Kalkulurako proposatuko den egitura elementua, Sotoa + behe solairua + 2 solairutan antolatzen da, beraz 4 forjatudun portikoa dela esan dezakegu. Elementu isolatu moduan kalkulatu da, eskailera guztiak egitura gehigarri bezala diseinatu dira proiektuan, eraikinari kanpotik eransten dira. Beraz, hauen kalkulua arbuaituko da, bezte egitura independente moduan aztertzen direlako. Eskematikoki forjatuen garapena ondorengo izango litzateke:


### 1. Behe eta lehen solairuen forjatu kolaborante eskema: (\*)



### 2. Bigarren solairuaren forjatu kolaborante eskema: (\*)



### 3. Estalkiaren forjatu eskema, Sandwich panela: (\*)




(\*) Eskemen adierazpena: Forjatuko norabide geziak habexken ezarpen norabidea adierazten dute, txapa kolaborantea hauekiko perpendikular ezarriko da.

Estalkian, ikusi ahal den moduan, forjatuaren norabidea aldatzen da. Hau proportzioen aldetik burututako erabakia da, modu honetan habe eta habexken perfil sekzio txikiagoak lortuko dira. Forjatu honetan habexkak ez dira forjatu kolaborante modura kalkulatu behar ganean soilik sandwich panela dutelako. Beraz, kalkulua garatzeko orduan perfil arrunta moduan ezarriko dira, beti haiei dagokien azalera tributarioa kontuan izanda (habexken azkoz txikiagoa izango da).


Ondoren, Kalkulurako erabiliko diren forjatu ebaketa-eskemak definituko dira.

### 1.A\_Kalkulu portikoa :



Portiko honetan habe eta zutabeetan erabiliko diren perfilak kalkulatu dira. Urdinez markatutako perfil eremuan habexkak ezarriko direnez, dagokien azalera tributarioa ezarri beharko da (habeak baino txikiagoa izango da, 2m-ro jartzen baitira). Portiko honen kalkulu garatua WinEva8 programaren bitartez burutuko da eta emaitza guztiak memorian jasoko dira.

### 1.B\_ Kalkulu portikoa:




Portiko honetan, kontrako norabidean egon ahal den haizearen eragina hartuko da kontuan. Horretarako 0-1 eta 2 solairuen errefortzu habexkak kalkulatu dira eta estalkian portikoaren habe nagusiak.

Oin planoetan ikusi ahal den moduan bigarren portiko hau ez da portiko erreala, solairu bakoitzeko egoera kaxkarrenean dauden habexken arabera antolatu da (kargaren aldetik). Portiko honen kalkulu atalean kargak definitu dira gainontzeko akzioekin. Kalkulu guztiak WinEva8 programaren bitartez burutu da, emaitza eta datu guztiak memorian jasoko direlarik.

Habexken kalkulari dagokionez, gainean forjatu kolaborantea izango dutenez eta habeen barnean lotuko direnez sekzio mixto moduan kalkulatu behar izango dira. Honetarako hormigoia erredukzio koefizientea ezarri beharko zaio.

Forjatu kolaborantearen kargei dagokionez, 17 kn/m<sup>2</sup> jasan ahal ditu; portikoan erregistratutako gainkarga maximoa 10Kn/m<sup>2</sup>- koak izan direnez, aukeratutako forjatua onargarria izango da.

### 1.A\_ PORTIKOAREN KALKULUA:



1.A\_1 irudia, Portikoaren neurriak metrotan eta korapiloen definizioa.

- \_Korapilo askea →
- \_Landapena →
- \_Bakarrik biratu, artikulazioa →

Hipotesi ezberdinetan kargak ezarri ahal izateko habeak eta estalkiko habexkek jasotzen duten azalera tributarioa jakin behar da, eremu hau planoetan adieraziko da. Kalkulua garatzeko azalera horren perimetroko habe edo habexkari perpendikularra den luzera hartuko da. Hau kode teknikoak lortutako kargen balioekin biderkatuko da, habe edo habexka horri dagokien karga lineala lortzeko. Hipotesiak ondoren zerrendatuko dira dagokien kargekin.

- Habeak, azalera tributarioaren zabalera neurria 5,20m
- Habexkak, azalera tributarioaren zabalera neurria 2m

#### a) Hipotesiak:


- BEREZKO PISUA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Behe. solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoak, barne banaketak	5,2	20Kn/m**
1. solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoak, barne banaketak	5,2	20Kn/m**
2. Solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoak, barne banaketak	5,2	20Kn/m**
Estalkia	Forjatua (sandwich), sabai faltsua	5,2_2*	6Kn/m_2,3Kn/m**

\* \_ Eskuman habeen zabalera tributarioa; eskerrean habexken azalera tributarioa.

\*\* \_Karga guztiak segurtasunaren aldetik borobildu egin dira.

\*\*\* \_Egituraren berezko pisua WinEva programak barneratzen du. Beraz, ez da kontuan izan taula hau burutzeko.




- ERABILERA GAINKARGA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Behe. solairua	Mediateka / Bulegoak	5,2	26Kn/m_11Kn/m**
1. solairua	Tailerra / Hostel-eko gelak	5,2	28Kn/m_11Kn/m**
2. Solairua	Hostel-eko gelak	5,2	11Kn/m**
Estalkia	Estalkiko erabilera	5,2_2*	2,5Kn/m_1Kn/m**

\* \_ Eskuman habeen zabalera tributarioa; eskerrean habexken azalera tributarioa.

\*\* \_Karga guztiak segurtasunaren aldetik borobildu egin dira.




- ELURRA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Estalkia	Elurra 0,5 Kn/m <sup>2</sup>	5,2_2*	2,5Kn/m_1Kn/m**

\* \_ Eskuman habeen zabalera tributarioa; eskerrean habexken azalera tributarioa.

\*\* \_Karga guztiak segurtasunaren aldetik borobildu egin dira.




- HAIZEA

Haizaren eragin akzioa	Burutu den kalkulua	Azalera m <sup>2</sup>	Kargaren lineala Kn/m
Presio akzioa	0,58Kn/m <sup>2</sup> x fatxadaren azalera tributarioa	20	20Kn**
Sukzio akzioa	-0,29Kn/m <sup>2</sup> x fatxadaren azalera tributarioa	20/40*	26Kn_11,6Kn**


\* Azalera ezberdinak ikusi ahal dira sukzioan, solairu arrunta eta altuera bikoitzeko tailer gunearena.

\*\* Karga guztiak segurtasunaren aldetik borobildu egin dira.



- TALKA:

50kn talka akzioa ezarri da 0,6 metroko altuerara.



b) Hipotesien konbinazioak:

Hurreko ataletan definitutako hipotesien konbinazio taulak bere osotasunean ezarriko dira WinEvan emaitzak lortu ahal izateko.

c) ELS	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea	Talka
ELS-EG	1	1	0,5	0,6	1
ELS-ELU	1	0,7	1	0,6	1
ELS-HAIZ	1	0,7	0,5	1	1

ELU*	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea	Talka
ELU-EG	1,35	1,5	0,75	0,9	1,5
ELU-ELU	1,35	1,05	1,5	0,9	1,5
ELU-HAIZ	1,35	1,05	0,75	1,5	1,5

\*Karga guztiak maioratu egin dira tentsio onargarriren kalkulua burutu ahal izateko.

d) Emaitzak:


Ondoren, aipatutako datu guztiak WinEva8 programan sartu direlarik, kalkulua burutuko da erabiliko diren profilen sekzioa jakin ahal izateko.

Ondorengo perfil motak erabiliko dira: IPE habe eta habexketan eta HEB zutabeetan.

ELS eta ELU egoera limiteen hipotesi konbinazioen emaitzak adieraziko dira dagozkien grafikoekin; deformazioak, desplazamenduak eta tentsio onargarriak batez ere aztertuz. Egoera limite bakoitzean, emaitzak bateratzeko, laburpen taulak burutuko dira egoera kaxkarrenak bertan jasoz. Eranskin moduan barra eta korapilo bakoitzaren datu guztiak atxikituko dira.

Hipotesi aurrekari moduan, argi dago kargak ikertze badira konbinazio kaxkarrenak ELS-Erabilera gainkarga, ELS-Haizea, ELU-Erabilera gainkarga eta ELU-Haizea izango direla. Haize hipotesi konbinazioetan desplome eta desplazamenduak izango dira nabari eta erabilera gainkarga hipotesi konbinazioetan, aldiz, gezi erlatiboak.

Emaitzen adierazpena bi ataletan antolatuko da. Hain zuzen, Zerbitzu Egoera Limiteari eta Azken Egoera Limiteari dagokien emaitza grafiko eta taulak jasoko dituztenak.




Korapilo eta barren izendapena, kalkuluen taulak interpretatzeko baliogarria.

- ELS, EMAITZAK \_Deformazioak eta Desplazamenduak nagusiki aztergai.

ELS hipotesi konbinazio emaitzak lortzerakoan, egoera limite honi dagokien profilen neurriak adieraziko dira. Hau ez da izango portikoaren dimentsionamendu azken emaitza, ELU egoera limitea aztertu beharko da, ia portikoko tentsioak onargarriak diren ala ez jakiteko. Onargarriak ez badira sekzioa handitu beharko da, portikoaren dimentsionamendu berria lortuz.


- o Deformazioen diagramak:

ELS\_Erabilera Gainkarga Hipotesi konbinazioa:






ELS\_Elur Hipotesi konbinazioa:



ELS\_Haize Hipotesi konbinazioa:




Emaitza limiteen taulak:

Egoera limitea	Gezi kaxkarrena (Barretan)	Desplome kaxkarrena (Korapiloetan)	Barraren zenbakia Korapilo zenbakia
ELS-EG	1/500...13,9mm	17,1mm < 25mm (onargarria)	B21_K3
ELS-Elurra	1/543...12,8mm	19mm < 25mm (onargarria)	B21_K3
ELS-Haizea	1/534...13mm	24,9mm < 25mm (onargarria)	B21_K3

\*Beraz, emaitza limiteen taulak aztertu ostean ikusi daiteke egoera kaxkarrenak ondorengoak direla: ELS\_EG geziarentzako eta ELS\_Haizea desplazamendu horizontalarentzako.

\*\*Aipatu beharra dago haizearen eragina bi norabideetan kalkulatu dela onargarria izanik bi kasuetan, kalkuluen emaitzetan egoera kaxkarrena irudikatzea erabaki da.

Ondorengo perfil sekzioa lortu dira ELS kalkulua burutu ostean.




Baina, gezi eta desplazamendu horizontal guztiak kalkulatu ondoren tentsio onargarriak kontuan hartu behar dira. Beraz perfil hauen sekzioak, seguruenik, ez dira baliagarriak izango.

- ELU, EMAITZAK\_Tentsio onargarriak.

Kargak maioratu eta programan kalkulatu ondoren lortutako zenbait tentsio ez ziren onargarriak ( $T > 2619 \text{ kg/cm}^2$ ). Beraz perfil guztiak ikertu ondoren sekzio berriak ezarri egin zaizkio. Jarraian lortutako emaitzak adieraziko dira.

- o Tentsio diagramak:

ELU\_Egoera kaxkarren adierazpen grafikoa




Egoera limitea	Tentsio kaxkarrena	Gilbordura kaxkarrena (Axialen taula erreparatuz)	Tentsio barra zbk Gilbordura barra zbk
ELS-EG	$261,5 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	$261,4 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	BT26_BG26
ELS-Elurra	$231 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	$231,2 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	BT26_BG26
ELS-Haizea	$251 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	$250,6 \text{ N/mm}^2 < 261,9 \text{ N/mm}^2$	BT26_BG26

\*Taulan ikusi ahal diren datu guztiak onargarriak dira, beraz kalkulu hauekin lortutako perfilak izango dira portikoarentzako balagarriak direnak.


Ondoren azken portikoaren perfilen sekzio eskema definituko da, baina eraikinak etorkizunean erabileraz aldatzeko aukera izatea nahi denez perfilak handitu egingo dira egitura uniformeago bat lortuz.

Emaitza guztiak eranskinetan aztergai izango dira.

- 1A, portikoaren perfilen sekzioak, ELU kalkulatu ostean.




- 1A, portikoaren perfilen sekzioak, egitura uniforme lortzeko aldaketak.




\*Hurrengo orrialdean, 1A portikoaren diagramak adieraziko dira( ELU kalkulatu ondorengo perfilak). Egitura ez uniformearen sekzioak hain zuzen. Ikusi ahal izango da nola deformazioak askoz txikiagoak diren.


### ELS\_Erabileria Gainkarga hipotesi konbinazioa




### ELS\_Haizea Hipotesi konbinazioa



### ELU\_Tentsio onargarrien diagrama



### ELU\_Axialen diagrama



### TENTSOAREAREN EZARPENA, KALKULUA ETA PERFILEN MURRIZKETA.

Protiko honen kalkuluak burutu hondoren aztertu egin da tailer altuera bakoitzeko gunearen estalkian desplazamendu horizontala nabarmena dela (onargarria baina handia). Beraz, tentsore baten ezarpena proposatu da estalkiaren habeen perfilen sekzioa murriztu ahal izateko.

Horretarako 10mm-ko altzairu tentsore bat aukeratu da, ondorengo ezaugarriak dituelarik:

TABLA DE CARGAS DE ROTURA		
Cable mm	Rosca m	Carga rotura kg
2,0	M4	500
2,0	M5	800
2,5	M5	800
3,0	M6	1250
4,0	M8	1300
5,0	M10	2600
6,0	M12	5100
7,0	M14	5900
8,0	M16	8000
10,0	M20	13000
12,0	M20	13000


Ferros Guma enpresako tentsoreak aukeratu dira kalkuluak burutu ahal izateko, aukeraturako informazioa katalogo teknikoetik hartu egin da.

Winevan kalkuluak burutu ahal izateko altzairu barra zilindriko baten moduan ezarri da (barra biartikulatu moduan), eta tentsioa ezartzeko karga termikoa aplikatu zaio. Gunearen tenperatura ezberdintasunak kontuan harturik. Beraz -23 graduko tenperatura karga ezarri zaio. Modu honetan barra tentsorean bilakatuko da, uzkurto egingo da.

Datuak ELS eta ELU hipotesien konbinazioetan aztertu dira eta hurrengo ondorioztatu da. Bakarrik egoera kaxkarreneko hipotesi konbinazioak adieraziko dira, beharrezkoa den perfila aipatuz.

Aipatu beharra dago kalkuluak estalkiko habeen perfil txikiago batekin burutu direla, IPE 270 IPE 300 beharrean.

### ELS haizea:




Egoera limitea	Desplome kaxkarrena (Korapiloetan)	Barraren zenbakia Korapilo zenbakia
ELS-Haizea	24,7mm < 25mm (onargarria)	K3

Beraz, desplazamendua onargarria izango da. Ondoren tentsioak kalkulatu beharko dira kargak maioratzen direlarik.


Emaitzak aztertu ondoren ikusi daiteke tentsio guztiak onargarriak direla, beraz estalkiaren gune horretan IPE 270 perfilak ezarri ahal izango dira. Trakzioa tentsorean: 81kN < 130kN. Onargarria.

### ELU tentsioak:





Egoera limitea	Tentsio kaxkarrena	Gilbordura kaxkarrena (Axialen taula erreparatuz)	Tentsio barra zbk Gilbordura barra zbk
ELS-EG	261,5 N/mm² < 261,9N/mm²	261,4 N/mm² < 261,9N/mm²	BT24_BG24

Beraz, onargarria izango da. Ondoren portikoaren eskema adieraziko da.



## 1.B\_PORTIKOAREN KALKULUA:



Portiko hau haizearen eraginaren kalkulua garatzeko burutu da. Lehen aipatu den moduan, ez da portiko erreal bat: forjatu bakoitzeko egoera kaxkarrenean dauden habexkak aukeratu dira, bai jasaten duten kargatutik bai hartzen duten azalera tributarioarengatik.

Estalkiko bi barrak, habeak izango dira, portikoaren norabide aldaketa dela medio. Beraz, haien azalera tributarioa handiagoa izango da. Datu guztiak kalkuluetan adieraziko dira.

Hipotesi ezberdinetan kargak ezarri ahal izateko habexkek eta estalkiko habeek jasotzen duten azalera tributarioa jakin behar da, eremu hau planoetan adieraziko da. Kalkulua garatzeko azalera horren perimetroko habe edo habexkari perpendikularra den luzera hartuko da. Hipotesiak ondoren zerrendatuko dira dagokien kargekin.

- Habeak, azalera tributarioaren zabalera neurria 4,5m
- Habexkak, azalera tributarioaren zabalera neurria 2m

### a) Hipotesiak:

- BEREZKO PISUA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Behe. solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoa, barne banaketak	2	57Kn/m
1. solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoa, barne banaketak	2	7Kn/m
2. Solairua	Forjatua, sabai faltsua, zoru teknikoa, barne banaketak	2	7Kn/m
Estalkia	Forjatua (sandwich), sabai faltsua	4,5*	5,17Kn/m


\*\_ Estalkiko habeen azalera tributarioa da.

\*\*\_ Egituraren berezko pisua WinEva programak barneratzen du. Beraz, ez da kontuan izan taula hau burutzeko.

- ERABILERA GAINKARGA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Behe. solairua	Mediateka	2	10Kn/m
1. solairua	Tailerra	2	10Kn/m
2. Solairua	Hostel-eko gelak	2	4Kn/m
Estalkia	Estalkiko erabilera	4,5*	2,25Kn/m

\*\_ Estalkiko habeen azalera tributarioa da.



Eskerrean\_Berezko pisuaren kargen ezarpen grafikoa; Eskuman-Erabilera gainkarga ezarpen grafikoa.


- ELURRA:

Solairua	Solairuak jasan beharko dituen elementuak:	Zabalera m	Kargaren lineala Kn/m
Estalkia	Elurra 0,5 Kn/m <sup>2</sup>	4,5	2,25Kn/m

- HAIZEA

Haizaren eragin akzioa	Burutu den kalkulua	Azalera m <sup>2</sup>	Kargaren lineala Kn/m
Presio akzioa	0,58Kn/m <sup>2</sup> x fatxadaren azalera tributarioa	8_20,25*	4,64Kn_11,7Kn
Sukzio akzioa	-0,29Kn/m <sup>2</sup> x fatxadaren azalera tributarioa	8_20,25*	2,32Kn_5,87Kn

\*Azalera tributario ezberdinak ikusi ahal dira, eskumakoa habexkei dagokiona eta ezkerrean habeei dagokiona.



Eskerrean\_Elur kargen ezarpen grafikoa; Eskuman\_haize indarren ezarpen grafikoa.

b) Hipotesien konbinazioak:

Haurreko ataletan definitutako hipotesien konbinazio taulak bere osotasunean ezarriko dira.

c) ELS	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea
ELS-EG	1	1	0,5	0,6
ELS-ELU	1	0,7	1	0,6
ELS-HAIZ	1	0,7	0,5	1


ELU*	Berezko P.	Erabilera Gaink.	Elurra	Haizea
ELU-EG	1,35	1,5	0,75	0,9
ELU-ELU	1,35	1,05	1,5	0,9
ELU-HAIZ	1,35	1,05	0,75	1,5

d) Habexken kalkulua

Egituraren diseinuari dagokionez, txapa kolaborantedun forjatuaren ezarpena planteatu da. Beraz, honen kalkulua habexkekin batera egitea ezinbestekoa izango da. Hau bakarrik 0-1 eta 2 solairuetan aplikatzen delarik; Estalkian habe arrunten moduan kalkulatuko dira barrak, aurreko portikoan bezala (gainean ez dute forjatu kolaboranterik).

- HABEXKEN KALKULUA:

Habexkak habeen barnean soldatuz eustea planteatu da. Beraz, sekzio mixto moduan kalkulatu beharko dira, hormigoi eta altzairu sekzio mixto bezala hain zuzen.



Habe eta habexken arteko loturaren xehetasuna, forjatu kolaborantea

Sekzio mixtoa kalkulatzeko, lehenik, Incoperfil etxe komertzialak eskaintzen dizkigun produktu katalogoa aztertu behar dugu eta bertatik baliagarria izango zaigun forjatua aukeratu.

Canto (cm)	e (mm)	LUZ ENTRE APOYOS (m)												
		2,00	2,25	2,50	2,75	3,00	3,25	3,50	3,75	4,00	4,25	4,50	4,75	5,00
0,80	0,80	12,4	10,5	7,2	4,9	3,3	2,1	1,2						
	1,00	13,6	11,8	8,1	5,6	3,8	2,5	1,6						
1,20	1,20	14,7	12,9	9,0	6,2	4,3	2,9	1,8	1,1					
	0,80	14,3	12,5	11,0	9,1	4,5	3,0	1,9	1,0					
1,20	1,00	15,8	13,7	12,1	10,5	7,4	5,3	3,7	2,4	1,5				
	1,20	17,1	14,9	13,2	11,7	8,4	6,0	4,2	2,9	1,8	1,0			

Para chapas superpuestas y chapas continuas que se apoyan en acero y hormigón, el mínimo apoyo debe ser de 75mm, y para otros materiales de 100mm.


Taulan ikusten den moduan 12cm lodierako forjatua ezarpena planteatu da, 0,8mm-ko lodiera duen altzairu txapa kolaborantea duelarik.

Taulan ere euskarrien (habexka edo habeen) zabalera minimoa adierazten da, 75mm. Beraz, Kontuan izan behar da, 0-1 eta 2 solairuetan kokatzen diren habexkak, errefortsu habexkak izango direla (haizearen bultzadak ekiditeko). IPE perfilak ezarpena erabaki da solairu hauetan. IPE 160 (minimoa) eta IPE 200-kin frogak egin dira baina emaitza onargarriak bakarrik beheko solairuan lortu dira. Beraz, zutabeen lotura bermatzeko, puntu konkretu hauetan (1 eta 2 solairuetan) IPE 220 errefortsu habexkak ezarriko dira. Ondoren kalkulua adieraziko da.

o Sekzio mixtoaren kalkulua:


Lehenik habexkek jasan egingo duten hormigoi masa definituko da, 2m-koa izango litzateke baina gairadimentsionatuta dagoenez metro bateko zabaleradun hormigoi masa kalkulurako aukeratzea planteatu da. Honi, hormigoiaren erredukzio koefizientea ezarri beharko zaio, material berdineko sekzio baliokide bat lortzeko. IPE 220 perfilen grafikoa adieraziko da.

- $E_2/E_1=0,5$  erlazioa ezarriko denez, hormigoi masaren luzera 10 aldiz txikiagoa izango da. Lortutako sekzio baliokidea ondorengo lortzen delarik: Txapa kolaboranteak jasotzen duen hormigoi portzentaia ere kontuan izan da, hain zuzen altzairuak 6cm-ko altuera hartzen du (uhinak)



Definitutako sekzioa WinEva8 ezartzeko bere inertzia eta azalera jakin behar dugu. Hauek kalkulatzeko sekzioa hiru elementu desberdinetan banatuko da eta perfil sekzioaren grabitate zentroa  $y_0$  ardatzarekiko kalkulatu egin beharko dugu. Ondorengo irudian adierazten da elementuen banaketa.

$A_1=60 \text{ cm}^2$  ;  $A_2=12 \text{ cm}^2$  ;  $A_3= 10,12 \text{ cm}^2$  ;  $A_4= 11,89 \text{ cm}^2$  ;  $A_5 10,12 \text{ cm}^2 \rightarrow A_{tot}=105,4 \text{ cm}^2$ -ko azalera totala izango du sekzioak.



Ondoren, Inertziaren balioa ezagutu ahal izateko sekzio baliokidearen grabitate zentroa non kokatzen den ( $y_0$  ardatzarekiko) kalkulatu behar dugu. Horretarako ondorengo adierazpena erabiliko da:

$$Y_g = \frac{(A_1 \cdot Y_1) + (A_2 \cdot Y_2) + (A_n \cdot Y_n)}{A_{tot}}$$

Non,  $y_n$  elementuaren grabitate zentroaren eta  $y_0$  ardatzaren arteko distantzia den.

$y_1=31 \text{ cm}$  ;  $y_4=25 \text{ cm}$  ;  $y_3=21,54 \text{ cm}$  ;  $y_4= 11 \text{ cm}$  ;  $y_5= 0,46 \text{ cm} \rightarrow y_0=24,74 \text{ cm}$ -ko grabitate zentroaren kokapena

Perfil berriaren sekzio baliokidearen inertzia Steiner-en formula aplikatuz lortuko dugu, ondorengo adierazpena erabiliz hain zuzen:

$$I_e = I_y + Ad^2$$

$$\text{Non, } I_y = \frac{1}{12} \cdot b \cdot h^3 \text{ eta, } Ad^2 = [An \cdot (Y_n - Y_g)^2]$$

Beraz,  $I_{tot} = I_1 + I_2 + I_3$  Inertziak batzen baditugu sekzio baliokidearen inertzia totala lortuko dugu.

**$I_{tot} = 11237,46 \text{ cm}^4$ -ko inertzia totala lortu da.**

e) Emaitzak:


Ondoren, aipatutako datu guztiak WinEva8 programan sartu direlarik, kalkulua burutuko da aukeratu diren perfilen sekzioa ia egokia den egiaztatzeko.

Ondorengo profil motak erabiliko dira: IPE habeetan, habexketan IPE2+ 12m-ko forjatu kolaborantea eta HEB zutabeetan.

ELS eta ELU egoera limiteen hipotesi konbinazioen emaitzak adieraziko dira dagozkien grafikoeekin; deformazioak, desplazamenduak eta tentsio onargarriak batez ere aztertuz. Egoera limite bakoitzean, emaitzak bateratzeko, laburpen taulak burutuko dira egoera kaxkarrenak bertan jasoz. Eranskin moduan barra eta korapilo bakoitzaren datu guztiak atxikituko dira.

Hipotesi aurrekari moduan, argi dago kargak ikertzen badira konbinazio kaxkarrenak ELS-Erabilera gainkarga, ELS-Haizea, ELU-Erabilera gainkarga eta ELU-Haizea izango direla. Haize hipotesi konbinazioetan desplome eta desplazamenduak izango dira nabari eta erabilera gainkarga hipotesi konbinazioetan, aldiz, gezi erlatiboak.

Emaitzen adierazpena bi ataletan antolatuko da. Zerbitzu Egoera Limiteari eta Azken Egoera Limiteari dagokien emaitza grafiko eta taulak jasoko dituztenak.




Korapilo eta barren izendapena; kalkuluen taulak interpretatzeko baliogarria.

- ELS, EMAITZAK\_Deformazioak eta Desplazamenduak nagusiki aztergai.

ELS hipotesi konbinazio emaitzak lortzerakoan, egoera limite honi dagokien perfilen neurriak adieraziko dira. Hau ez da izango portikoaren dimentsionamendu azken emaitza, ELU egoera limitea aztertu beharko da ia portikoaren tentsioak onargarriak diren ala ez jakiteko. Onargarriak ez badira sekzioa handitu beharko da, portikoaren dimentsionamendu berria lortuz.

Kalkulua garatzeko, lehen aipatu den moduan ez da portiko erreal bat hartu, bakarrik egoera kaxkarrenean dauden habexkak (habexka hauek bakarrik ezarriko dira zutabeekin elkartzut, gainontzekoak aurrerago kalkulatu dira), habek eta zutabeak ezarriko dira. Zutabeak beraz, HEB-180 motako perfilak izango dira hasiera batean (aurreko portikoan lortutako zutabeen neurri minimoa baita).

- Deformazioen diagramak:  
ELS\_Erabileria Gainkarga Hipotesi konbinazioa / ELS\_Haizea Hipotesi konbinazioa




Emaitza limiteen taulak:

Egoera limitea	Gezi kaxkarrena (Barretan)	Desplome kaxkarrena (Korapiloetan)	Barraren zenbakia Korapilo zenbakia
ELS-EG	1/784...8,3mm	16,2mm < 25mm (onargarria)	B5_K4
ELS-Elurra	1/174...8,8mm	16,9mm < 25mm (onargarria)	B5_K4
ELS-Haizea	1/862...7,5mm	29,8mm < 25mm (ez-onargarria)	B5_K4

Lortutako haize hipotesi konbinazioa aztertu ondoren ikusi daiteke HEB 180 Zutabeak ez direla eraikinarentzako aproposak. Korapiloaren desplazamendu horizontala 25mm baino handiagoa baita. Beraz nahiz eta perfil hauek haurreko portikoan definitu, ezinbestekoa izango da HEB 180 perfil denak HEB 200 perfilengatik aldatzea. Ondoren, perfil berrien ezarpen osteko haize hipotesi konbinazioaren deformazio grafika adieraziko da ia perfil berriekin desplazamendu horizontala onargarria den ziurtatzeko.

Ere esan beharra dago habeak lerdentasun egokia bete ditzaten ezarri direla perfil minimo horiek.

ELS\_Haizea Hipotesi konbinazioa:



Konbinazioan ikusi daiteke perfil berrien ezarpena egokia dela (4. korapiloaren desplazamendua 23,6mm < 25mm. Beraz lortutako ELS egoera limitearen portikoaren dimentsionamendua ondorengoa da:



Baina hau ez da zertan portikoaren azken diseinu emaitza izan behar, tentsioak ia onargarriak diren kalkulatu beharko dugu. Horretarako hipotesien konbinazioetan kargak maioratu egingo dira WinEva programaren bitartez (berezko pisua 1.35 eta gainontzekoak 1.5 koefizienteengatik biderkatuz).

Tentsioen grafika adieraziko da ondoren, ia onargarriak diren ziurtatzeko.




- ELU, EMAITZAK\_Tentsio onargarriak.

Kargak maioratu eta programan kalkulatu ondoren lortutako tentsio guztiak onargarriak ziren. (T > 2619 kg/cm<sup>2</sup>). Beraz, ELS atalean kalkulaturako sekzio berdinak mantenduko dira portikoaren azken dimentsionamenduan.

- o Tentsio / Axial diagramak:

ELU\_Egoera kaxkarren adierazpen grafikoa




Tentsioen kalkulua burutu ahal izateko modulu erresistentearen balioa ezagutu behar da, ondorengo adierazpenaren bitartez:

$$W_r = \frac{I_{fn}}{d_{max}} = \frac{11237,46cm^4}{23,84cm} = 471,37cm^3$$

Beraz, lortutako modulu erresistentearen balioa WinEvan ezarrita, azalduko tentsioen diagramak lortu dira.

Egoera limitea	Tentsio kaxkarrena	Gilbordura kaxkarrena (Axialen taula erreparatuz)	Tentsio barra zbk Gilbordura barra zbk
ELS-EG	223 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	223,3 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	BT4_K3
ELS-Elurra	235 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	235 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	BT4_K3
ELS-Haizea	237 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	236,7 N/mm <sup>2</sup> < 261,9N/mm <sup>2</sup>	BT4_K3

Taulan ikusi ahal diren datu guztiak onargarriak dira, beraz kalkulu hauekin lortutako perfilak izango dira portikoarentzako baliaigarriak direnak.




Ondoren kalkulaturako bi portikoen perfilen sekzio eskema definituko dira, baina eraikinak etorkizunean erabileraz aldatzeko aukera izatea nahi denez perfilak handitu egingo dira egitura uniformeago bat lortuz (hau planoetan adieraziko da).

Haizearen kalkulurako burututako portikoan behe solairuko habexken sekzioa murriztu egin da ELS-n desplazamendu horizontalean eragina ez dutelako. Beraz ELU datuak sartuz haien tentsioak onargarriak izaterarte kalkulatu dira. Ondorengo bi perfilak lortu direlarik (IPE 180 eta IPE 200, biak + txapa kolaborantea).

Lehen aipatu dudan moduan, hauek ez dira habekia guztien neurriak izango. adierazitakoak soilik dira errefortsu habexken neurriak, haizeak eragiten duen desplazamendu horizontala ekiditeko. Zutabeekiko elkartut ezarriko dira

HEB 180 zutabe perfilak HEB 200 perfilengatik aldatu egin dira; Ikusi ahal den perfilen aukeraketa eskema ELS eta ELU egoera limiteetatik zuzenean lortutako dimentsionamendua da.




f) Konektore kopurua:

Portikoen dimentsioak definitu ondoren, habexka eta forjatu kolaborantearen arteko erlazioa aztertu behar da. Bi elementuek elkarren artean lotzeko behar duten konektore kopurua kalkulatu behar da hain zuzen.

Ondoren, Konektoreen datuak (Incoperfil katalogo komertzialetik hartuta) gogoraziko dira.

DATUAK:

- ALTZAIRUA: S275, 275 N/mm<sup>2</sup>
- FORJATU KOLABORANTEA:
  - o S275 altzairua
  - o Konektoreen diametroa\_2cm
  - o Konektoreen tentsio onargarria\_275 N/mm<sup>2</sup> (maioratua)
  - o Konektoreen minorazio koefizientea\_1,25
  - o Forjatuaren lodiera\_12zm
  - o Gainkarga onargarria\_17 Kn/m<sup>2</sup>
  - o Forjatuaren kalkuluan erregistratutako gainkarga maximoa\_10 Kn/m<sup>2</sup>
  - o



Ondorengo adierazpena erabilita kalkulatu da beharrezko konektoreen kopurua:

$$V_{ed,+} \leq V_{konektore} \rightarrow \frac{V_{ed} \cdot S_{yZ0}}{I_y} \cdot d \leq \frac{F_{yd}}{\alpha \cdot \sqrt{3}} \cdot A_{konektore}$$

Non,

$V_{ed}$  → Indar ebakitzaille handiena Kg-tan (5966kg)

$S_{yZ0}$  → Hormigoi elementuaren azalera eta grabitate zentroaren arteko erlazioa  $A_n \cdot (y_n - y_g)$

$A_{kon}$  → Konektoreen azalera  $1^2 \cdot \pi$

$I_y$  → Sekzio baliokidearen inertzia (11237,46 cm<sup>4</sup>)

$\alpha$  → Konektoreen minorazio koefizientea 1,25

$F_{yd}$  → Konektoreen tentsio erresistentzia 2750 kg/cm<sup>2</sup>

$d$  → Lortu nahi dugun konektoreen arteko distantzia.

Beraz, datuak formulan aplikatu ondoren:  $d = 16,9$  cm-ko konektoreen arteko distantzia lortzen da.

Ondorengo ondorioztatu dezakegu:

- L 6,5m-ko habexketan → 650cm / 16,9 cm = 37,4 cm → 38 konektore ezarri egin behar dira.
- L 4,5m-ko habexketan → 450cm / 16,9 cm = 26,6 cm → 27 konektore ezarri egin behar dira.

Beraz,


- L 6,5m-ko habexketan → 650cm / 38 = 17cm-ro ezarri beharko dira .
- L 4,5m-ko habexketan → 450cm / 27 = 17cm-ro ezarri beharko dira.

Beharrezko konektore kopuruen kalkulua burutu ostean, 1. egitura elementuaren kalkulua guztiz burutu dela ezan dezakegu. Egitura horri dagokion plano eta xehetasun guztiak eranskinetan adieraziko dira. Kalkulu emaitzak bere osotasunean ere eranskinetan.


Egitura orokorra aztertu delarik hurrengo orrialdean egitura honen habexka isolatuen kalkulua adieraziko da:

## 1. EGITURAREN HABEXKEN KALKULUA

Habexken kalkulua burutzeko kontuan izan beharko da hauen lotura habeekin, ondorengo xehetasunean adierazten den moduan:



Habexkak, habeen barnean soldatu egingo dira, beraz ez dira habe jarrai bat bezala kalkulatu. Atalka baizik. Horretarako kontuan izan beharko dira eraikinean ezarritako karga eta habexka hauek izango dituzten luzera. Hau aztertutik ondorengo hiru habexka mota aztertu ahal ditugu:



Habexka mota bakoitzaren karga ezaugarriak:

- Gorriz: Tailer eta mediateka guneko habexkak izango dira. Hauek gainkarga handiena jasan egingo dute
  - o Berezko pisua: 3,5kn/m<sup>2</sup>
  - o Erabilera gainkarga: 5kn/m<sup>2</sup>
  - o Luzera: 6,3m
- Berdez: Habexka hauek tramo laburrean kokatzen direnak izango dira, kalkuluetan guztiak berdinak ezarri dira, txapa kolaborantea eusteko neurri minimoko perfilak. Ondoren baldintza kaxkarrenak adieraziko dira:
  - o Berezko pisua: 3,5kn/m<sup>2</sup>
  - o Erabilera gainkarga: 5kn/m<sup>2</sup>
  - o Luzera: 4,5m

- Urdinez: Extebizitzetako eta bulegoetako karga jasotzen duten habexkak izango dira, 6,3m-ko luzera dituztenak.
  - o Berezko pisua: 3,5kn/m<sup>2</sup>
  - o Erabilera gainkarga: 2kn/m<sup>2</sup>
  - o Luzera: 6,3m

Ondoren habexka mota bakoitzaren kalkulua adieraziko da. Wineva programan barra bi artikulatu moduan ezarri dira eta bakarrik ELS hipotesi konbinazioetan lortutako gezia hartuko da kontuan 1/500. Lortutako emaitza onargarriak adieraziko dira habexka mota bakoitzeko.

### - 4,5 metroko luzerako habexkak (berdez):


Hauek kalkulatzeko egoera kaxkarrenekoak aukeratu dira, tailerlean eta mediatekan kokatzen direnak hain zuzen. Lehenengo ataletan adierazi den moduan aukeratu ahal daitekeen perfil minimoa IPE 160 izango da, 75mm base minimo bat beharrezkoa delako txapa kolaborantea eusteko. Beraz, perfil honekin burutuko da kalkulua lehenik eta behin.

Habexkak 2 metro-ro ezarriko dira.

- o Sekzio mixtoaren kalkulua:

Lehenik habexkek jasan egingo duten hormigoi masa definituko da, 2m-koa izango litzateke baina gairadimentsionatuta dagoenez metro bateko zabaleradun hormigoi masa kalkulurako aukeratzea planteatu da. Honi, hormigoiaren erredukzio koefizientea ezarri beharko zaio, material berdineko sekzio baliokide bat lortzeko.

- $E_2/E_1=0,5$  erlazioa ezarrikoenez, hormigoi masaren luzera 10 aldiz txikiagoa izango da. Lortutako sekzio baliokidea ondorengo lortzen delarik:




Definitutako sekzioa WinEvam ezartzeko bere inertzia eta azalera jakin behar dugu. Hauek kalkulatzeko sekzioa hiru elementu desberdinetan banatu da eta perfil sekzioaren grabitate zentroa  $y_0$  ardatzarekiko kalkulatu egin beharko dugu. Ondorengo irudian adierazten da elementuen banaketa.

$$A_1 = 60 \text{ cm}^2 ; A_2 = 12 \text{ cm}^2 ; A_3 = 6 \text{ cm}^2 ; A_4 = 7,25 \text{ cm}^2 ; A_5 = 6 \text{ cm}^2 \rightarrow A_{tot} = 177,24 \text{ cm}^2\text{-ko azalera totala}$$

Ondoren, Inertiaren balioa ezagutu ahal izateko sekzio baliokidearen grabitate zentroa non kokatzen den ( $y_0$  ardatzarekiko) kalkulatu behar dugu. Horretarako ondorengo adierazpena erabiliko da:

$$Y_g = \frac{(A_1 \cdot Y_1) + (A_2 \cdot Y_2) + (A_n \cdot Y_n)}{A_{tot}}$$



Non,  $y_n$  elementuaren grabitate zentroaren eta  $y_0$  ardatzaren arteko distantzia den.

$y_1=25$  cm ;  $y_2=19$  cm ;  $y_3=15,63$  cm ;  $y_4=8$  cm ;  $y_5=0,37$  cm →  $y_q=20,43$  cm-ko grabitate zentroaren kokapena lortzen dugu.

Perfil berriaren sekzio baliokidearen inertzia Steiner-en formula aplikatuz lortuko dugu, ondorengo adierazpena erabiliz hain zuzen:

$$I_e = I_y + Ad^2$$

Non,  $I_y = \frac{1}{12} \cdot b \cdot h^3$  eta,  $Ad^2 = [An \cdot (Y_n - Y_g)^2]$

Beraz,  $I_{tot} = I_1 + I_2 + I_3$  Inertziak batzen baditugu sekzio baliokidearen inertzia totala lortuko dugu.

$I_{tot} = 5294,52 \text{ cm}^4$ -ko inertzia totala lortu da.

Beraz datu hauek (inertzia eta azalera) winevan sartuta, ondorengo emaitzak lortzen dira:

Ondorengo kargak ezarri dira barretan:

+ Berezko pisua →  $3,5 \text{ kn/m}^2 \cdot 2 \text{ m} \rightarrow 7 \text{ kn/m}$

+ Erabilera gainkarga →  $5 \text{ kn/m}^2 \rightarrow 10 \text{ kn/m}$

EMAITZAK:

Egoera limitea	Gezia (Barran)
ELS-EG	1/930...8,6mm

Beraz, onargarria izango da, habexka mota hauek ezarriko dira 6,5m-ko tailer eta mediateka tramo guztietan.

Ondoren, habexka hauek izan beharreko konektore kopuruak kalkulatu dira aurreko atalean azaldutako formulak erabilita.


$$V_{ed,+} \leq V_{konektore} \rightarrow \frac{V_{ed} \cdot S_y Z_0}{I_y} \cdot d \leq \frac{F_{yd}}{\alpha \cdot \sqrt{3}} \cdot A_{konektore}$$

Ebakitzaila maximoa → 3987kg-koa ezarri ondorengo emaitza lortzen dugu → 25 konektore ezarri behar dira 18 cm ko banaketa neurriarekin.

- Tailer eta mediatekako habexkak – 6,5 metroko luzera (gorriz):

Hauetan lehenengo habexka kalkuluan bezala sekzio minimoko perfila ezarri da kalkulurako IPE 160 baina ez dira emaitza onargarriak lortu. IPE 180 perfilak ezarri egin behar izan dira haien arteko 1m-ko banaketarekin

o Sekzio mixtoaren kalkulua:




Definitutako sekzioa WinEvam ezartzeko bere inertzia eta azalera jakin behar dugu. Hauek kalkulatzeko sekzioa hiru elementu desberdinetan banatu da eta perfil sekzioaren grabitate zentroa  $y_0$  ardatzarekiko kalkulatu egin behar dugu. Ondorengo irudian adierazten da elementuen banaketa.

$A_1=60 \text{ cm}^2$  ;  $A_2=12 \text{ cm}^2$  ;  $A_3=7,28 \text{ cm}^2$  ;  $A_4=8,69 \text{ cm}^2$  ;  $A_5=7,28 \text{ cm}^2$  →  $A_{tot}=95,9 \text{ cm}^2$ -ko azalera totala

Ondoren, Inertziaren balioa ezagutu ahal izateko sekzio baliokidearen grabitate zentroa non kokatzen den ( $y_0$  ardatzarekiko) kalkulatu behar dugu. Horretarako ondorengo adierazpena erabiliko da:

$$Y_g = \frac{(A_1 \cdot Y_1) + (A_2 \cdot Y_2) + (A_n \cdot Y_n)}{A_{tot}}$$



Non,  $y_n$  elementuaren grabitate zentroaren eta  $y_0$  ardatzaren arteko distantzia den.

$y_1=27$  cm ;  $y_2=21$  cm ;  $y_3=18$  cm ;  $y_4=8,6$  cm ;  $y_5=0,4$  cm →  $y_q=21,04$  cm-ko grabitate zentroaren kokapena lortzen dugu.

Perfil berriaren sekzio baliokidearen inertzia Steiner-en formula aplikatuz lortuko dugu, ondorengo adierazpena erabiliz hain zuzen:

$$I_e = I_y + Ad^2$$

Non,  $I_y = \frac{1}{12} \cdot b \cdot h^3$  eta,  $Ad^2 = [An \cdot (Y_n - Y_g)^2]$

Beraz,  $I_{tot} = I_1 + I_2 + I_3$  Inertziak batzen baditugu sekzio baliokidearen inertzia totala lortuko dugu.

$I_{tot} = 7056,29\text{cm}^4$ -ko inertzia totala lortu da.

Beraz datu hauek (inertzia eta azalera) winevan sartuta, ondorengo emaitzak lortzen dira:

Ondorengo kargak ezarri dira barretan:

+ Berezko pisua  $\rightarrow 3,5\text{kn/m}^2 \cdot 1\text{m} \rightarrow 3,5\text{kn/m}$

+ Erabilera gainkarga  $\rightarrow 5\text{kn/m}^2 \cdot 1 \rightarrow 5\text{Kn/m}$

EMAITZAK:

Egoera limitea	Gezia (Barran)
ELS-EG	1/517...12,2mm

Beraz, onargarria izango da, habexka mota hauek ezarriko dira 4,5m-ko tramo guztietan. Ondoren, habexka hauek izan beharreko konektore kopuruak kalkulatu dira aurreko atalean azaldutako formulak erabilita.

$$V_{ed,+} \leq V_{konektore} \rightarrow \frac{V_{ed} \cdot S_y Z_0}{I_y} \cdot d \leq \frac{F_{yd}}{\alpha \cdot \sqrt{3}} \cdot A_{konektore}$$

Ebakitzaila maximoa  $\rightarrow 3000\text{kg}$ -koa ezarri ondorengo emaitza lortzen dugu  $\rightarrow 24$  konektore ezarri behar dira 26,25 cm ko banaketa neurriarekin.

#### - Etxebizitza eta bulegoko habexkak – 6,5 metroko luzera (urdinez):

Hauetan lehenengo habexka kalkuluan bezala sekzio minimoko perfila ezarri da kalkulurako IPE 160 baina ez dira emaitza onargarriak lortu. IPE 180 perfilak ezarri egin behar izan dira haien arteko 1,5m-ko banaketarekin

o Sekzio mixtoaren kalkulua:

Aurreko atalean kalkulatu sekzio mixto bera ezarriko da;

$A_1=60\text{ cm}^2$ ;  $A_2=12\text{ cm}^2$ ;  $A_3=7,28\text{ cm}^2$ ;  $A_4=8,69\text{ cm}^2$ ;  $A_5=7,28\text{ cm}^2$   $\rightarrow A_{tot}=95,9\text{ cm}^2$ -ko azalera totala

$I_{tot} = 7056,29\text{cm}^4$ -ko inertzia totala lortu da.

Beraz datu hauek (inertzia eta azalera) winevan sartuta, ondorengo emaitzak lortzen dira:

Ondorengo kargak ezarri dira barretan:

+ Berezko pisua  $\rightarrow 3,5\text{kn/m}^2 \cdot 1,5\text{m} \rightarrow 5,25\text{kn/m}$

+ Erabilera gainkarga  $\rightarrow 2\text{kn/m}^2 \cdot 1,5\text{m} \rightarrow 3\text{Kn/m}$

EMAITZAK:

Egoera limitea	Gezia (Barran)
ELS-EG	1/503...12,5mm

Beraz, onargarria izango da, habexka mota hauek ezarriko dira 6,5m-ko etxebizitza eta bulego tramo guztietan. Ondoren, habexka hauek izan beharreko konektore kopuruak kalkulatu dira aurreko atalean azaldutako formulak erabilita.

$$V_{ed,+} \leq V_{konektore} \rightarrow \frac{V_{ed} \cdot S_y Z_0}{I_y} \cdot d \leq \frac{F_{yd}}{\alpha \cdot \sqrt{3}} \cdot A_{konektore}$$

Ebakitzaila maximoa  $\rightarrow 3000\text{kg}$ -koa ezarri ondorengo emaitza lortzen dugu  $\rightarrow 25$  konektore ezarri behar dira 18 cm ko banaketa neurriarekin.

Beraz, 1. Egituraren habexka guztiak ere kalkulatu dira, ondoren laburpen taula adieraziko da:

Habexka	Perfil sekzioa	konektoreak
Etxebizitza eta bulego guneeetan (L 6,5m)	IPE 180	25
Tailer eta mediateka guneeetan (L 6,5m)	IPE 180	24
L 4,5 metroko tramoetan	IPE 160	24



## 2º EGITURA ELEMENTUAREN KALKULUA\_Jatorrizko egituraren gainean forjatu berria.

### DATU OROKORRAK:


- IZAERA: Egitura portikatu metalikoa. Errefortzuak hormigoiari ezarri beharko zaizkio.
- ALTZAIRUA: S275, 275 N/mm<sup>2</sup>
- HORMIGOIA: HA-30
- FORJATU KOLABORANTEA:
  - o S275 altzairua
  - o Konektoreen diametroa\_2cm
  - o Konektoreen tentsio onargarria\_275 N/mm<sup>2</sup> (maioratua)
  - o Konektoreen minorazio koefizientea\_1,25
  - o Forjatuaren lodiera: 15zm
  - o Gainkarga onargarria\_17 Kn/m<sup>2</sup>
  - o Forjatuaren kalkuluan erregistratutako gainkarga maximoa\_10 Kn/m<sup>2</sup>
  - o Habexken ezarpena: 2m-ro habexkak ezarriko dira (Incoperfil katalogoaren arabera)

### EGITURA ELEMENTUEN DESKRIBAPENA:


